ASTEKO GAIA: DEBAGOIENEKO IZADI ESKOLAK LANEZ GAINEZKA DABILTZA /2-3

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko ekainaren 15a • II. urtea • 26. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

Goienka2a
Artea eta diseinua jaietako karteletan

KIROLAK
Aitor Zabaleta bergararra Gorlako auto igoeran nagusi izan zen /10

JOSE RAMON VITORIA
"Irakasle moduan izan dudan esperientziarik ederrena izan da Hezkuntza Berezia" /9

ETAko KIDE IZATEA LEPORATU DIE ESPAINIAKO POLIZIAK

Zazpi atxilotu Debagoienean

Zazpi lagun atxilotu zituen Espainiako Poliziak eguen goizaldean Mondragoen, Aramaion eta Gasteizen: Premin Sanpedro (26 urte), Natale Landa (30 urte), Txus Goikoetxea (32 urte) eta Nerea Hernandez (30 urte), Mondragoen; Aitor (20 urte) eta Gorka (27 urte) Astondoa anaiak Aramaion eta Iban Astondoa (29 urte), aurrekoen anaia, Gasteizen.

Goizaldean hasi zen polizia operazioa, 01:00etik aurrera Mondragoeko Amnistiaren Aldeko Batzordearen arabera; eta albiste hau idaztean, oraindik amaitu barik zegoen operazioa. Hortaz, litekeena da atxiloketa gehiago izatea.

Mondragoeko Arrano elkartea eta zazpi atxilotuen etxebizitzak arakatu zituzten, baita Aramaioko Barajuen auzoko astondoarren Artikila baserria ere.

Txus Goikoetxea eta Premin Sanpedro, poliziak eguenean atxilotuetako bi.

Mariano Rajoy Espainiako Barne ministroak adierazi zuenez, egindako miaketetan 35 kilo dinamita eta detonagailuak aurkitu ziren. Baita Logroñoko plano bat, joan den asteburuan ustez ETAk zartarazitako bonba-autoaren tokikoa, eta Bergarako istiluetan erabilitako materialaren antzekoa. ETAren Donostia komandoko kide izatea leporatu zien atxilotuei. Premin eta Txus, gainera, EKIN erakundearen Debagoieneko arduradunak zirela esan zuen.

Ehun poliziak baino gehiagok esku hartu zuten operazioan, GEO izenekoek barne.

Korpusti Oñatin

Domeka egun handia izango da Oñatin, izan ere Korpusti eguna ospatuko dute. Hala ere, jaiak gaur, egubakoitza, goizean hasi dituzte: Oñatz dantza taldea herriko auzoetan zehar aritu da aspaldiko ohiturari eutsiz. Gaurtik domekara bitartean, beraz, jaigiroan murgilduta izango dira oñatiarrak. Ekitaldirik azpimarragarrienak domekarako iragarri dira. Besteak beste, Korpus eguneko zortzikoa dantzatuko da. /18

LENIZ MOTOR
JUAN M. ZUAZUBISKAR
BASO, LORATEGINTZA ETA NEKAZARITZARAKO TRESNAK
Gipuzkoa etorbidea, 9
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 78
VIKING
STIHL

Arrasateko tabernariak haserre udalarekin

Arrasateko Udalak 500.000 eta 1.300.000 pezeta bitarteko isunak jarri dizkie Gure Leku, Branka, Doke eta Arrogoi tabernetako jabeei, ordutegia ez errespetatzeagatik. Horrek kezka eta ezinegona sortu du herriko tabernarien artean.

Hori dela eta, joan den asteartean herriko 50 tabernari inguruk batzarra egin zuten Montxon elkartean. Alde zaharreko eta auzoetako tabernari gehienak elkartu ziren, izan ere, 60 tabernetako jabeek osatzen dute Arrasateko Tabernarien Elkartea. Arrasateko Udalaren isunak izan zituzten aztergai.

Aurrerantzean Tabernarien Elkarteak hartuko dituen neurriak ere eztabaidagai izan zituzten. /5

Bergarako Udala LHTren alde agertu da

Bergarako udalbatzarrak atzera bota du AHT Gelditu! Elkarlana plataformak aurkeztutako mozioa. Joan den egubakoitzean egindako bilkuran, EAJ-EAk ez zuen mozioa onartu. EHk, aldiz, bai. PSE-EE eta PPko ordezkariak ez ziren bilkuran izan. Bestalde, astean hainbat kale agerraldi egin dira Lastertasun handiko Trenaren aurka. /3

HERRIZ HERRI/4-5 • IRITZIA/6-7 • SAILKATUAK/8 • KIROLA/10-11 • KULTURA/14-15 • NON ZER/16-18 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21 • TELEBISTA/23

Izadia maitatzen ikasteko

Debagoienak hiru izadi eskola ditu

JOXE ARANZABAL

Eskoletako profesionalek edo haurrek izan ezik, jende gutxik daki Debagoienak hiru izadi eskola dituela: Museo Eskola Eskoriatzan; Ingurugiro Eskola Udalan (Arrasate); eta Natur Eskola Oñatin. Hirurak EAEko izadi eskolen elkartean sarturik.

Izenak, kokapena eta baliabideak desberdinak dituzte, baina helburuetan bat datoz hirurak: lehenengo eta behin, ingurumenaren gaineko problematika azaldu; bigarrenik, kontzientzia sortu; eta hirugarrenik, jarrera positiboak eragin. Edo denetan urte gehien daraman Isabel Guridik dioen moduan, "izadia maitatzen irakatsi".

ESKORIATZAKO MUSEO ESKOLA

Denetan aspaldikoena Eskoriatzakoa da. Orain hamabost urte sortu zuen Eskoriatzako Udalak, Atxorrotx Etnografia taldeak eta Luis Ezeiza eskolak proposatutako egitasmoa onartu ostean.

Herriaren erdialdean dago, udaletxetik oso hurbil, Deba ibaiaren ondoan. Bi ardatzen inguruan antolatuta dago museoa: izadia eta gizadia. Isabel Guridi arduradunaren ustez, bi elementu hauek erabat uztarturik daude, "hizkuntzak berak erakusten duen moduan". Izadia edo natura aztertu ostean, gizadia historian erakusten da, horretarako elementu historikoak eta etnografikoak erabiliz.

Ekintza osagarriak eskaintzen ditu museoak: ogia edo lihoa egiten erakutsi, adibidez, edo Deba ibaia aztertu. Baita herrian zehar egindako hainbat ibilbide, historia, etnografia eta ekonomia aztertzeko.

Urte osoan dago zabalik, baita eskolak oporretan daudenean ere. Datorren urtean noizbait etxe berria izango du: XV. mendeko Ibarraundi jauregia, Apotzagarako bidearen ondoan.

UDALAKO INGURUMEN ESKOLA

Orain hamar urte sortu zen, Udala auzoko eskola zaharberrituan. Zerbitzuei dagokienez, bera izango da hornituena seguruenik. Izan ere, besteek ez bezala, bi logela ditu 38 oherekin, komunak eta sukaldea. Horrek esan nahi du hainbat egunetako egonaldiak egin daitezkeela Udalako eskolan.

Hiru langile ditu, bi egun osoko funtzionarioak eta beste bat bi urteko kontratuarekin. Aurrekontua ere berak du handiena: 16 milioi pezeta. Iaz arte, Arrasateko Udalaren Hezkuntza batzordearen pean egon zen. Gaur egun, berriz, Ingurumen batzordearekin egiten du lan.

Urriaren erdialdetik ekainaren 22ra dago zabalik. EAEtik jasotzen dituzte bisitari gehienak. Horietako asko bi-hiru eguneko egonaldiak egiten dituzte, euren irakasle eta guzti. Halakoetan Auzo Lagunek prestaturiko jakiak jaten dituzte. Izozkailua eta laba bereziak dituzte jakiak gorde eta prestatzeko.

Goiz gehienak kanpoan igarotzen dituzte, auzoan, artadian, Besaide inguruetan edo Lezetxikin, besteak beste. Arratsaldez barruko lanak hobesten dituzte: laginak aztertu, fitxak egin, etab.

Urtean lau bat aldiz, urtaroekin batera, "Udalaxpetik" berripapera argitaratzen dute eta han izandakoen artean banatu. Erakusketak ere antolatzen dituzte, Arrasateko Monterron jauregian. Urtero-urtero, gainera, kanpaina berezia antolatzen dute, Arrasateko ikastetxe guztietan zaborraren problematika aztertzeko.



Arrasatek, Eskoriatzak eta Oñatik izadi eskolak dauzkate. Profesional gazteak eta ondo prestatuak dituzte, baliabide egokiekin kasurik gehienetan. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxeetatik hartzen dituzte bisitari gehienak. Izadia ezagutzen eta maitatzen irakastea dute helburu. Goian ezkerretik hasita, Oñatiko Milagrosa ikastetxeko ikasleak Udalako Ingurugiro Eskolan. Behekoetan, Oñatiko Natur Eskolako arduradunak eta ikasleak ogia egiten Eskoriatzako Museo Eskolan.

OÑATIKO NATUR ESKOLA

Olakua auzoan dago, Legazpira bidean eskuinaldeko arboladi baten erdian, aspaldiko eskola zaharrean. Eraikina kanpotik ez da bat ere polita, baina barrua oso argitsua da, bigarren eta hirugarren solairuak batez ere. Zaharra da, ostera, eta udan bero handia eta neguan hotza egiten du.

Hori ere Oñatiko Udalarena da, baina lau lagunek osatutako "Kaskabeltz" enpresak kudeatzen du. Imanol Biain irakasle oñatiarra da buru. Taldeko bi geologoak dira eta bat biologoa.

Kokagunerik ederrena izan arren, aurrekonturik murritzena dute. Urtean, gainera, zazpi hilabetean dago eskola zabalik. Eskari handia dutenez, ia egunero mendira egiten dute, lanak *in situ* egitera. Horretarako, paregabeko lekuak dituzte: Araotz, Arantzazu... Eskola barruan egon behar direnerako ere badute leku eta zerbitzu egokirik. Izan ere, sei gela handi dituzte, gaien araberа antolatuta, eta lau txiki, hitzaldiak, erakusketak, etab. egiteko. Bebarrua zabala dute eta lantegiak egiteko aprobetxatzen dute.

Oñatiko herriarentzat ere gero eta gauza gehiago antolatzen dituzte. Urtero, azken lau urteotan, Ingurumen Astea antolatu izan dute, arrakasta handiz.

Hala ere, larri dabiltza lanez eta ezin iritsi ari dira. Horregatik, eskola denbora luzeagoan irekitzeko eskatu diote udalari, jende gehiagok goza dezan izadiaz.

Hiru eskola, helburu bat

ESKOLAK	HERRIA	JABEA	KUDEATZAILEA	EREMUA (m²)	AURREKONTUA (pta)	LANGILEAK
Ingurugiro Eskola	Udala (Arrasate)	Arrasateko Udala	Arrasateko Udala	400	16.000.000	3
Museo Eskola	Eskoriatza	Eskoriatzako Udala	Eskoriatzako Udala	350	8.000.000	1,5
Natur Eskola	Oñati	Oñatiko Udala	Kaskabeltz enpresa	1.200	6.000.000	4

ISABEL GURIDI/Eskoriatza Museo Eskolako arduraduna

"Gure bailara gaixorik dago, oreka falta zaigu"

Gure izadi teknikarien artean bera da beteranoena. Isabel Guridik 59 urte ditu, baina sekulako barne indarra du berba egiten duenean. Museo Eskolan hasi aurretik Atxorrotx etnologia taldean ibili zen eta Luis Ezeiza herri eskolan irakatsi zuen. Orduan bezala gaur ere, izadia eta gizadia uztartzen ditu bere lanean.

"Bakarrik gordetzen da maitatzen dena, eta maitatzeko ezagutu egin behar da. Horregatik ikasi behar dugu izadia maitatzen"

— Gaur egungo gaztetxoek nola ikusten dute izadia, natura?

— Sentitzen dute oso garrantzizkoa dela eta, hortaz, gorde egin beharra dagoela. Guk ez genuen kontzientzia dute.

—Eta nondik datorkie ardura hori?

— Eskolatik. Gizakiok beti egiten dugu berdin: konturatzen garenean zerbait galtzeko arriskuan gaudela, orduan hasten gara hori balioesten. Eurak ere konturatu egin dira.

— Bailaran ditugun hiru eskolak gaztetxoei begira prestatu dira batik bat. Eta helduendako, zer?

— Gure kasuan txikiei eta helduei begira egina dago. Hainbat ikastaro antolatu ditugu, helduekin lantzekoak: olioarena, permakulturaren gainekoa eta energia berriztagarriei buruzkoa, esate baterako.

— Gure eguneroko bizimodua bat dator izadiarekiko errespetuarekin?

— Ez. Oraingoz konturatu baino ez gara egiten zer datorkigun gainera. Herri erakundeak ere gehiago inplikatu behar dira, ez bakarrik hitzaldiak egiten, diruz laguntzen baino.

— Debagoienean hiru eskola daude, izadia maitatzen irakasten dutenak. Nahikoa da?

— Beharbada ez. Badugu elkarren berri eta elkarri laguntzen diogu. Hala ere, batzorde bat eratu beharko litzateke bailarako ingurumen batzorde guztiak, mankomunitatea, ikastetxeak eta gu koordinatzeko. Egutegi bateratua izan beharko genuke.

— Zeintzuk dira debagoiendarrok geure bailaran ezagutu beharreko lekuak?

— Bailara inguratzen duten mendiak eta beren basoak, errekak... Hortxe daude Hiruatx, Zaraia, Kurtzebarri, Elgea... leku zoragarriak guztiak ere. Ezagutu egin behar ditugu eta gordetzen duten edertasunean murgildu. Orduan konturatuko gara zer-nolako desorekan bizi garen, zenbateko kaltea egiten duen gure inguruko kutsadurak. Eta horretaz konturatzen garenean hasiko gara neurriak hartzen, kalteak konpontzeko. Baina horretarako jakin egin behar edertasunaren berri. Bakarrik gordetzen da maitatzen dena, eta maitatzeko ezagutu egin behar da. Horregatik maitatu behar dugu izadia, natura.

— Euskal Herriko errekarik zikinena dugu.

— Eta industria dentsitaterik handiena eta bizimailarik aberatsenetakoa eta irakaskuntza sistema onenetakoa... Hortaz, zerbait ez dago ondo. Gure bailara gaixorik dago, oreka falta zaigu: kutsadura handiegia, eraikin larregi... Konturatu behar gara izadia eta gizadia bat garela, hausnarketa egin eta ondorioak atera.

HABEA, izadi eskolen elkartea

Eskoriatza, Oñati eta Udalako eskolak HABEAn daude elkarturik, Ingurumen Hezkuntzarako Ekipamenduen Elkartean, alegia. Hau 1997an sortu zen elkarte moduan, batzorde gisa sei urteko lana egin ostean.

HABEAren lehen egitekoa izan zen mintegi bat antolatzea, ingurumen eskoletarako kalitate irizpideak ezarriko zituena. Irizpide horiek bi helburu dituzte: batetik, herri agintariei aholkularitza ematea, araudi bat egin dezaten, EAEko eskola berezi hauek behar bezala homologatzeko; eta bestetik, eskolen kalitate maila igotzea. Hori bermatzeko, urtero antolatzen ditu ikastaroak, izadi eskoletan dabiltzan teknikariak prestatzeko.

Une honetan Udalako Ingurugiro Eskolak du HABEAko lehendakaritza. Eskoriatzako Museo Eskola ere idazkaritza teknikoko kide da.



Kandi Fernandez, Udalako Ingurugiro Eskolako zuzendaria, da HABEAko jarduneko lehendakaria.

ZERBITZUAK	BISITARIAK URTEAN	PROIEKTU BEREZIAK
38 ohe, sukaldea, komunak, laborategia, lantegiak, ibilbideak	2.000	Zaborraren problematika
Lantegiak, ibilbideak	2.700	Permakultura eta energia berriztagarriak
Gela tematikoak, lantegiak, ibilbideak	4.000	Ingurumen astea

Bailaran, labur

AZPIEGITURAK

Bergarako Udalak ez du onartu AHTren gaineko mozioa

Bergarako udalbatzarrak atzera bota du AHT Gelditu! Elkarlana plataformak aurkeztutako mozioa. Joan den egubakoitzean egindako bilkuran, EAJ-EAk ez zuen mozioa onartu. EHk, aldiz, bai. PSE-EE eta PPko ordezkariak ez ziren bilkuran izan. Mozioak zera eskatzen zuen: administrazio errekurtsoa tartekatzea Eusko Jaurlaritzak onartu duen Trenbide Sarearen Lurralde Antolamendurako Planaren dekretuaren aurka. Izan ere, aipatutako plana onartuz, AHTren proiektua ere onartuta geratzen baita. Eta hori onartuta, errekurtsoa tartekatu eta aurrera eramateko pertsona bat izendatzea. EHren ustez, azpiegitura lana horren erraldoia izanik, gizartean eztabaidarik egon ez izana larria da. EAJ-EAren ustez, berriz, gaur egungo trafikoari irtenbidea emateko modua da AHT. Astean zehar hainbat kale agerraldi izan dira bailaran AHTren aurka. Bestalde, zapaturako manifestazioa iragarri dute Donostian./MONIKA BELASTEGI

ENPRESAK

Carrefourren lau hipermerkatu erosi ditu Eroskik 16.000 milioi pezetan

Carrefour multinazional frantziarraren lau saltoki erosi ditu Eroskik. Hain zuzen ere, bi hipermerkatu eta beste bi merkataritza gune erosteagatik 16.000 milioi pezeta ordaindu ditu Eroskik. Murtzian, Cartagenan, Terrasan eta San Cugaten kokatuta daude Eroskik erosi dituen Carrefourreko saltokiak. El Corte Inglesek beste bost hiper erosi dizkio Carrefourri. Azken horrek eta Continentek bat egin dutela eta, multinazional frantziarrak hiper batzuk saldu beharra izan du./ENEKO AZKARATE

ENPRESAK

Ulma, Matrici eta Ampo-Poyam enpresak MCCra itzul daitezke

Zamudioko Matrici, Oñatiko Ulma eta Idiazabalgo Ampo-Poyam enpresak MCCra itzul daitezke. MCCko eta aipatutako beste hiru kooperatibetako buruak elkartze prozesua bultzatzeko elkarrizketetan ari dira. MCCko presidente Antonio Cancelok aurten lagako du kargua eta bere helburua da orain dela 10 urte kooperatiba taldea eratu zenean kanpoan geratu ziren hiru enpresak taldera itzultzea. Horrela gertatuko balitz, MCC taldeak 2.920 langile gehiago izango lituzke./E.A

HEZKUNTZA

Eskola txikien jai arrakastatsua Angiozarren, eguraldiak lagundu ez arren

Eguraldiak lagundu ez zuen arren, jende ugari bildu zen domekan Angiozarren ospatu zuten eskola txikien aldeko jaian. Euria izan zuten lagun egun osoan, baina ez ziren horregatik kikildu eta giro ezin hobean ibili ziren. Gipuzkoako 27 eskola txikietako umeak izan ziren jaian, baita eskola txikien aldeko aldarrikapenarekin bat egin nahi izan zuen hainbat jende ere. "Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik" lelopean ospatu zuten eguna. Arbiaska pilotalekua leporaino zela arratsaldean izan zen ekitaldia, ikusmin handiz jarraitu zuten bildutakoek./AINTZANE IRIZAR

BERGARA | JOSE MARI ETXANIZ KALERA

Jose Mari Etxaniz presoa domekan utziko dute aske, seguruenik

21 urte daramatza kartzelan eta gaur egun Salamancako Topasen dago

MONIKA BELASTEGI

Jose Mari Etxaniz Bergarako presoa herrirako bidean dago. AABren arabera, datorren domekan aske utziko dute. Dagoeneko bi autobus bete dira, Topaseko kartzelara joateko.

Otsailean, hainbat ekitaldi egin ziren Etxanizen alde. BERRIGARA

Jose Mari Etxaniz, Bergarako presoa domekan, hilak 17, askatuko dute, seguruenik. Auzitegi Gorenak, kartzelatik irteteko beharrezkoak diren paperak sinatzera eman dizkio, behintzat. "Bergarara" plataformak ere, Etxanizen alde diharduen taldeak, autobusak antolatu ditu Salamancara joan eta Topaseko espetxetik irtetean harrera egiteko.

Etxanizek 21 urte egin zituen kartzelan otsailaren 19an. Nahiz eta odol deliturik ez agertu, epaileak 34 urteko kartzela zigorra ezarri zion. Atxilotu zutenetik Soria, Herrera de la Mancha, Alcala Meco, Puerto de Santamaria eta beste hainbat kartzelatan egon da. Gaur egun, 1999. urtetik, Salamancako Topasen dago, nahiz eta 1995. urtetik aske egon beharra zeukan, zigorraren hiru laurdenak beteta.

EUROAREN ASTEA

Bihar, zapatua, amaituko da udalak antolatu duen 'Euroaren astea'. Aste honen helburua 2001eko urtarrilaren 1ean euroa iristen denerako, dendari eta kontsumitzaileak prest egotea da. Hainbat ekitaldi izan dira astean zehar: hitzaldiak, moneta-trukearen simulazioa, euroinformazio gunea... Biharkoa, umeei zuzendutako eguna izango da. Asmoa, jolasen bidez euroa erabiltzen ikastea izango da. 16:30etik aurrera, San Martin plazan eurojolasak, pailazoak eta gaztelu puzgarriak egongo dira.

ANTZUOLA | INDUSTRIALDEARAKO LURRAK

Industrialdea egiteko urrats berriak eman ditu udalak

Erosketa prozesua abian da, lur-jabeekin akordio batera iritsi ondoren

AINTZANE IRIZAR

Joan zen asteko osokoen bilkuran erabaki zuten lur sailen erosketa prozesua abian jartzea. Deskarga aldean, Ipurtikako parajeetan, hain justu, egingo dute industrialdea. Horretarako beharrezko diren lur sailak erosi behar ditu baina, udalak aldez aurretik.

Hainbat hartu-eman izan ostean, adostasuna lortu dute udaleko arduradunek eta lur-jabeek. Hamasei lur-jaberi eragingo die industrialdeak. Mireia Unamuno alkatearen esanetan, "desjabetzaren bidera ez genuen iritsi nahi, eta horregatik lur-jabe guztiekin akordioa lortzen saiatu gara, eta lortu dugu".

239.000 bat m^2 erosiko ditu udalak guztira. Horietatik 60.000 gutxi gorabehera izango dira eraikigarriak.

Lehendabiziko fasean, lur saila egokitu beharko dute gero eraikitzen hasi ahal izateko. Alkatearen esanetan, 2003. urterako pabilioi batzuk egiteko asmoa dute. Izan ere, Antzuolako enpresa batek behar handia dauka, eta lehenbailehen irtenbidea eman nahi diote. Horrela, enpresari irtenbidea emateaz gain, herrigunetik enpresak ateratzeko aukera emango du industrialde berriak.

Zertzelada

Adostasuna lortu dute udaleko arduradunek eta hamasei lur-jabeek. Orain, lurrok erosteko prozesua abian da, joan zen asteko osoko bilkuran halaxe onartuta.

GURASOENDAKO INFORMAZIO BILERA

Bihar, zapatua, gurasoei zuzendutako hiru batzar egingo dituzte liburutegian. Helburua udalekuei buruzko informazioa ematea da. Izan ere, guraso askok ez dute jakiten umeek zer egiten duten udalekuetan, eta horrek kezka ugari sortu izan du. Goizeko 10:00etan izango da lehendabiziko batzarra, 5 urtekoen eta 1. mailakoen gurasoendako. 11etan, 2. eta 3. mailakoen gurasoendako, eta 12etan, 4., 5. eta 6. mailakoen gurasoendako.

ELGETA | XXXII. TXIRLO TXAPELKETA ETA OMENALDIA

Omenaldia bola jokoari eskainitako orduengatik

Omenduek Espaloian egingo dute bazkaria

IBAN ARANTZABAL

Bolo jokoan egindako lanagatik omenduko dituzte Sebastian Arantzabal, Jose Arantzabal eta Doroteo Urkia. Omenaldiarekin batera, Gipuzkoako XXXII. Txirlo txapelketa jokatuko da Zabaleta baserriaren ondoan dagoen bolatokian. Eguraldiak lagunduko ez balu, Elgetako bolatokira ekarriko litzateke tiraldia. Irabazlea "Beltza" dela aurretik dakigun arren, parrekotan daude bigarren, hirugarren eta presidente saria eskuratzeko.

100 lagun inguruk bazkalduko dute omenduekin Espaloian. Gipuzkoako txirlo elkarte guztietatik hurbilduko dira bolariak eta bazkalostean bertsolariak eta trikitilariak izango dira.

Sebastianek, Doroteok eta Josek berriro ere egin beharko dute txirlotan. IBAN ARANTZABAL

OÑATI | HIRUGARREN MUNDUARI DIRULAGUNTZAK

Bederatzi milioi emango ditu udalak hirugarren munduari laguntzeko

Herriko zein kanpoko bederatzi elkarteren artean banatuko dute dirua

AINTZANE IRIZAR

Garapen bidean dauden herrialdeetarako 15 milioi pezetako diru partida aurrez ikusi zuen udalak aurrekontuetan. Horietatik sei milioi gobernuz kanpoko bederatzi elkarteren artean banatuko du. Guztira, 21 elkartek egin du eskaria, eta esan bezala, bederatzi elkarteri emango diote dirua. Horien artean, badira Oñatikoak ere; besteak beste, Banoia, Oihana Lopez oñatiarra eta Parrokiako gazte taldea. Diru kopururik handiena, 1,5 milioi pezeta, Beatriz Yarza oñatiarrak jasoko du Medicos del Mundoren izenean. El Salvadorren lan egiten du Beatrizek; hondamendiei aurre egin ahal izateko erabiliko dute dirua. Era berean, larrialdietarako hiru milioi pezeta gastatu ditu udalak El Salvadorren eta Indian. Sentsibilizazioari dagokionez, 400.000 pezeta emango diote Banoiari. Herri anaituei dagokienez, oraingoz hiru milioi eman diote Gleibat Elfulari.

Oihana Lopezek Ecuadorrerako hezkuntza proiektua aurkeztu zuen.

LITERATUR SARIAK BANATU DITUZTE

Atzo, eguena, banatu zituzten II. Oñati Hiria literatur lehiaketako sariak. Olerkiari dagokionez, Jon Aiastui oñatiarrak jaso zuen lehen saria, *Nire itzala eta biok ez gara gehiago joaten parkeetara* lanagatik. Bigarrena Ekaitz Goikoetxea beasaindarrarentzat izan zen. Ipuinen atalean Xabier Artolak irabazi zuen, *Bipagoeta* ipuinarekin. Bigarren saria Andoni Arenazarentzat izan zen. Oñatiar onenaren saria Xabier Igartuak eraman zuen.

Bertsoetan, azkenik, Julen Zelaieta berarra izan zen garailea. Etxean preso lanarekin; bigarrena, Ekaitz Goikoetxea; eta oñatiar onena, berriz, Ander Lizarralde.

ESKORIATZA | OLETA AUZOKO AURKIKUNTZA

Aranzadi elkarteak garrantzi handia eman die Olazarreko aurkikuntzei

Olazar kaleko lanak uztailean amaituko dira

JOXE ARANZABAL

Donostiako Aranzadi Zientzia Elkarteak txosten batean adierazi duenez, orain hiruzpalau aste Olazarren aurkitutako aztarnak XVIII. mendearen amaierakoak dira. Garai hartan Eskoriatzan izandako burdinola eta errota lotzen zituen azpiegitura hidraulikoaren arrastoak, hain zuzen.

Garai hartan Gasteizko bi enpresak erosi zituzten Errotazarreko bolua eta burdinola. Aranzadi elkarteak garrantzi handia eman die arrasto hauei, bai gordetzeko, bai ondarea aberasteko.

Orain hiru aste pasatxo Olazar auzoko eraberritze lanak egiten ari zirela, hondeatzeko makinak arku baten aztarnak aurkitu zituen. Lanetako arduradunek zerbait susmatu zuten, garai batean inguru hartan burdinola eta errota egon baitziren. Horregatik, Donostiako Aranzadi Zientzia Elkarteari deitu zioten, txosten bat egin zezan. Aranzadikoek gonbita onartu eta bederatzi egun egin zituzten aztarnak miatu eta dokumentazioa biltzen.

Txostena jaso eta gero, eta aurkikuntzaren garrantzia ikusirik, Eskoriatzako Udalak neurriak hartuko ditu aztarnak gordetzeko.

Olazarko lanek, baina, aurrera segitzen dute normaltasunez. Probisa enpresa ari da lanok egiten, 69 milioi pezetako aurrekontuarekin. Besteak beste, saneamendu eta zoladura lanak ari dira egiten. Oinezkoentzako egokituko dute Olazar kalea; noranzko bakarrekoa izango da aurrerantzean.

Saneamenduari dagokionez, ura, gasa eta etxeetako ur zikinak bideratzeko hodi berriak sartu dituzte. Lurrari dagokionez, berriz, hormigoizkoa izango da.

Zertzelada

Aranzadi Zientzia elkarteak dioenez, Olazarreko aztarnak XVIII. mendearen amaierakoak dira, hain zuzen ere Errotazarreko bolua eta burdinolarenak.

ARRASATE | ISUNAK ORDUA EZ ERRESPETATZEAGATIK

Tabernariak haserre daude, udalak isunak jarri dizkielako lau tabernariri

Konponbidea elkarrizketa bidez bilatu nahi dute herriko tabernariek

J.A.

Arrasateko Udalak 500.000 eta 1.300.000 pezeta bitarteko isunak jarri dizkie Gure Leku, Branka, Doke eta Arrogoi tabernetako jabeei, ordutegia ez errespetatzeagatik. Horrek kezka eta ezinegona sortu du herriko tabernarien artean.

Hori dela eta, joan den asteartean herriko 50 tabernari inguruk batzarra egin zuten Montxon elkartean. Alde zaharreko eta auzoetako tabernari gehienak elkartu ziren, izan ere, 60 tabernetako jabeek osatzen dute Arrasateko Tabernarien Elkartea. Arrasateko Udalaren isunak izan zituzten aztergai. Aurrerantzean Tabernarien Elkarteak hartuko dituen neurriak ere eztabaidagai izan zituzten.

Bileraren ostean adierazi zutenez, herriko alderdi politiko guztietako ordezkariekin hitz egiteko asmoa dute. Hemendik aurrera ere, hainbat ekintza egingo dituzte. Dena dela, argi utzi nahi izan zuten ez dutela arazorik nahi Arrasateko Udalarekin eta konponbidea elkarrizketaren bidez bilatzeko asmoa dutela. Beraz, laster hasiko dira politikarien eta tabernarien arteko bilerak.

Arrasateko Udalak sonografoak erabiltzen ditu tabernak zer ordutan ixten dituzten jakiteko. Izan ere, izenak berak erakusten duenez, sonografoak zaratak eta orduak neurtzen ditu. Aparailu horiek erabiliz, udalak jakin dezake halako tabernatan zein ordutan izan diren azken zaratak eta horiek zein neurritakoak izan diren. Eta horien arabera hartzen ditu udalbatzarrak hartu beharreko erabakiak.

Arrasateko Udalak sei sonografo ditu herriko tabernetan banatuta. Aldiro lekuz aldatzen ditu, horrela herriko taberna eta kafetegi gehienak kontrolatzeko. Aparailu horietako bakoitzak aldatu ezin daitekeen memoria dauka. Baten bat horretan ahaleginduz gero, gainera, sekulako zigorra jaso lezake.

Udalak tabernariei jartzen dien isunak sonografoan jasotako informazioaren araberakoak izaten omen dira. Zenbat eta geroago itxi, orduan eta isun handiagoa. Zarataren maila ere kontuan hartzen da.



Argazkian, Arrasateko Udalak erabiltzen dituen sonografoak. ARRASATE PRESS

LEINTZ GATZAGA

Gatzaren museoak bisitari asko izan ditu maiatzean

J.A.

Maiatza hil oparoa izan da gatzaren museoan. Ia egunero Euskal Herri osotik etorritako ikasleak izan dituzte bisitan. Gainera, joan den hilean etorritako gehienek, eguna Leintz Gatzagan igarotzea erabaki zuten. Ekainean, berriz, museoko ateak domeketan bakarrik irekiko dituzte. Uztailean, seguruenik, astebarruan irekiko dute.

ARETXABALETA

Festa handia Kurtzebarri Eskolan zapatuan

J.A.

Kurtzebarri eskola Haurren Astea ospatzen ari da. Martitzenean lau urteko haurrek zirkua antzeztu zuten gurasoen aurrean. Festa handia, hala ere, zapatuan egingo dute, Iturrigorri pilotalekuan. Saskibaloi txapelketa, mendi irteera, herri bazkaria antolatu e.a. dituzte. Guraso, ikasle eta irakasleek esku hartuko dute jai horretan.

UDARAKO IKASTAROAK (Uztaila - Abuztua - Iraila)

Ingeniaritza
- Kalkulua I eta II
- Termodinamika
- Algebra I
- Fisika I eta II
- Informatika

Informatika
- Ofimatika ikastaro konbinatuak eta monografikoak (Windows, Word, Excel, Access)
- Internet

Ordenadore bat ikasle bakoitzarentzat

Eskola partikularrak
- LH • DBH • LOGSE • BT

Mekanografia
- Ordenadore bidez
- Teklatuari begiratu gabe
- Minutuko 360 pultsazio

BIKAIN Akademia Bikain Akademia

Aurten baita Aretxabaletan ere!

Aralar, 6 - ARETXABALETA - 943 71 27 80
Garibai, 6B - ARRASATE - 94 77 11 06

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS EMPRESARIALES

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

ESKAINITAKO TITULUAK

IDAZKARITZA
ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
APLIKAZIO INFORMATIKOEN GARAPENA
NAZIOARTEKO MERKATARITZA
MERKATARITZA KUDEAKETA ETA MARKETINA

Informa zaitez

ETEO
Enpresa Zientzien Fakultatea - Mondragon Unibertsitatea
Larraña auzoa, 16 • 20560 OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 71 80 09 Fax: 943 71 81 62
e-posta: informacion@eteo.muni.es

Zabalik

JUAN CARLOS ELORZA

Benetako informazioa

Goienkariko kideek eskatutakoa idazten hasia nintzen, eta batbatean albiste batek testua erdizka uztera behartu ninduen. Gure zuzendariaren kontrako kereila kriminal batek *Gara* zirimolaren erdian kokatu zuen beste behin ere, urte bi baino gehiagoko ibilbidean, eta berehalako eginbeharrek hain larriak ez zirenak baztertu zituzten.

Informazioaren gizartearen garapenak, eta hedabideen hedapenak eta hazkundeak, ez dute derrigorrez bermatu behar modu askean informatzeko eskubidea, ezta irakurleek benetako informazioa jasotzeko duten eskubidea ere.

Ausartuko nintzateke baieztatzen, mota guztietako euskarriekin (telebistak, irratiak, egunkariak, editorialak, aldizkari tematikoak, interneteko atariak, guztia zuzendaritza bakarraren menpe) informazioaren inperioak eraikitzen ari diren talde ekonomiko edota mediatiko handiek lortzen duten bakarra, enpresen jabeek eta horien kide politikoek hedatutako mezuen nagusitasuna bermatzea dela (informazioa propaganda bihurtuz, modu leun eta dotorean bada ere), eta euren arauekin jokatzeko prest ez daudenak informazioaren merkatutik kaleratzea. Batzuetan nahikoa da itoaldi ekonomikoa bultzatzea, heriotza gozoa eta errudunik gabekoa. Baina inkonformistak ez badu horrela etsi, eskura dauden baliabide guztiak erabiliko dituzte. Euskal Herrian badauzkagu horren adibideak, *Egin* eta *Egin Irratia*ren itxierak esaterako. Eta horren guztiaren harira, askotan entzun dudan esaldi zapaltzailea etorri zait burura: "Egunkari guztiek gauza bera diote". Ez da egia. Denek ez dute gauza berberez informatzen eta denek ez dute modu berean egiten. Eta horrek izan beharko luke informazio askatasunaren mamia. Arazoa ez datza egunkari baten ildo editorialarekin bat etortzean ala ez, baizik eta egunkariek euren proposamen informatiboak eskaintzeko dituzten benetako aukeretan. Batzuentzat infinituak eta beste batzuentzat gero eta zailagoak.

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com



Kirola eta zaborra

Astelehenean Bergaratik Gorlara abiatu nintzen eta Ayton Sennaren oroigarria dagoen tokitik pasa ondoren heldu zen nire atsekabea. Ez nindoan 200 edo 500 zaldiko gurdian, ez dakit zenbateko abiaduran, eta ez nuen kopilotuaren agindurik behar izan zenbatuta zegoen errebuelta hartzeko, baina bide bazterreko ikuskizuna lotsagarria iruditu zitzaidan: edari latak, garagardo botilak, denetako plastiko enbaseak eta abar batzuk poltsatan, eta gehienak bide bazterrean sakabanatuta.

Jakin dudanez, zapatuan Gorlako auto igoera jokatu zen eta hark eragindakoa izan zen ikusi nuen gehiena.

Gutun honen bitartez zera esan nahi diet hondakinok utzi zituztenei: kirolaz gozatzea ondo dago, hamarretakoarekin baldin bada hobe, baina ondoren batu ditzagun hondarrak eta hondakinak eta ekarri ditzagun etxera. Eta asko eskatzea ez baldin bada, buelta daitezela zaborrak batzera bota zituztenak.

Ez nuen markarik hautsi ezta ere zaborrik utzi.

J. M. I
BERGARA
NAN: 72.564.992-S

Hemeroteka

Javier Otxoa eta Aita Menni

"(Javier Otxoak) Aita Mennin igaro beharreko hil bakoitzarengatik 900.000 pezeta ordaindu behar izaten ditu Asepeyo aseguru etxeak, Kelmek kontrataturik bere txirrindulariak babesteko. 'Eskerrak ez dugula hainbeste diru aurreratu behar', esan du Andoni (anaiak), 'baina halako etxeetara joateko bitartekorik ez dutenengan pentsarazten dit horrek. Gustatuko litzaidake herri erakundeek diru gehiago inbertitzea burmuinetako kalte larriak dituzten gaixoak hartzeko ospitaletan'.

EL PAÍS
2001-06-10

Maite dut trena... (baina ez zuena)

"Hain beharrezkoa ote da salgaiak Donostiatik Bilbora 45 minutuan joatea? Udan izozkia eramateko ala? Eta izango dira alkandora zuriko gorbatadunak Bilbotik Gasteiza egunero lehenbailehen joan nahi dutenak (eta txartela ordain dezaketenak!), baina horien beharrak zuritzen ote du tamaina honetako proiektu erraldoia? Izugarrizko aurrerapentzat saltzen zaigu Donostiatik Gasteiza 40 minutuan joatea, baina tartean inon ezingo da igo edo jaitsi, nahiz eta trena muturretatik igaro burlaka. Adibidez, Goierri edo Urola Garaitik ezingo gara Debagoienera —gero eta ikasle eta langile gehiagoren bilgunera— joan, edo Durangaldera edo...".

IÑAKI MENDIGUREN
Argia, 2001.6.17

Maila intelektuala

"ETAren azken elkarrizketaren ostean 'maila intelektuala' jarri da modan, etikaren eta moralaren kaltetan. Agian Redondo Terreros agertu delako etika eta moral faltaren defendatzaile?

Maila intelektualaren gainbehera nabari omen da elkarrizketan. Askori entzun diot, baina beste inori baino lehenago Ibarretxeri. Alabaina ez Ibarretxek ez bere jarraitzaileek ez dute azaltzen zertan datzan maila intelektualaren gainbehera hori.

Zorioneko maila intelektual hori zertan datzan jakiteko bide bat salatu dutenen jokabidea aztertzea izan daiteke, bidezkoa baita uste izatea jokabidea maila intelektualarekin akort joango dela.

Beraz, has gaitezen jokabidea aztertzen: (...) • ETAk 50 laguneko armada bat Bergaran bildu eta erakustaldi bat egiteko besteko indarra duela defendatzeaz gain, guztiak (Gasteiz, Madril, Paris, komunikabideak, komandorik gabe utzi dutela esankari izan direnak barne) pozarren agertzea armada hura ETArena dela eta.

• ETAren Bergarako erakustaldiak, Balzari kalte egiteko baino ez duela balio izan uste izatea. Benetako kalteak jasan dituzten gizagaixoak! (...)".

JULEN KALZADA
Gara, 2001.6.14

Aizkorriko parke naturala

"Beste zenbait eremu interesgarritan, berriz, gune babestuen izendapena zurrumurru hutsean gelditzen da (onerako edo txarrerako). Adibidez, Aizkorri-Elgea natur parke izendatzeko zurrumurrua egon zen, baina ez dirudi gauzatuko denik. Izan ere, geroztik parke eolikoa egin da eta, beraz, natur parke izendatzen bada ere, mugak parke eolikoari doitu beharko zaizkio, garai batean Mañariko harrobiengatik Urkiolako Parkean gertatu zen bezala".

ELHUYAR
2001eko ekaina

Bergarako istiluak

"Aurreko larunbatean Bergaran eragindako istiluetan bada, gertatutakoaz gain, puntu bat kezkagarria: ekintzaileek ez dute azalpenik ematen. Inork ez du bere gain hartzen ekintza, eta inork ez du argudiatzen. Motibazioa igar liteke, baina ekintza metodo horri alternatiba eskaintzekotan, ez dago sobran ezagutzea".

MARTXELO OTAMENDI
Euskaldunon Egunkaria, 2001-06-10

Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE

Eztabaida

Erretzeak osasunari egiten dion kalteaz geroago eta gehiago egiten da berba. Jada ez dira medikuak bakarrik erretzearen arriskuaz ohartarazten digutenak. Gobernuek ere geroago eta diru gehiago bideratzen dute erretzeari lagatzeko publizitate kanpainetara. Azkenaldian, gainera, neurriak ere hartu dira toki itxietan, osasun etxeetan edo garraio publikoetan esaterako, erretzea debekatzeko. Orain-tsu, lantokietan ere erretzea debekatzeko Osasun ministroak iragarritako lege proposamenak eztabaida piztu du. Komunikabideetan asko hitz egin da honen gainean. Gaur eztabaidagai dugu hemen.

Zer irizten diozu lantokietan erretzea debekatzeari?

Debekatzeko tema



GERARDO MARKULETA
Idazlea

Gogoan daukat zer-nolako katxondeoa erabiltzen zuten hemengo egunkariek zein telebistek, duela urte dezente, tabako erretzaileen aurkako gurutzada errukigabearen gehiegikeria nabarmenenak, Estatu Batuetatik Europa iparraldeko herrialdeetara hedatzen hasi zirelarik: "Erretzaile ohiak tabako enpresari denuntzia jarri, eta irabazi? Kalean erretzeagatik kristoren isuna? Taberna eta jatetxeetan ezin erre? (eta kafearen ostean, zer, txupatxusa? Zer kafe konpleto klase da hori?)". Sinesgaiztasun eta erretzaileekiko konplizitate keinu haiek guztiak desagertuak dira zuzentasun politikoak tabako kontsumitzaileekiko intolerantziarekin bat egin duenetik.

Minbizia borrokatzeko elkarte batek egin, eta telebista klase guztiek zabaldu dituzten iragarki kutre horien arabera, zilegi litzateke lantegi kutsatzaileen isurkinak enpresaburuen bulegoetara berbideratzea, ala? Ez naiz inondik inora mendekotasunetan sartzea inori gomendatzen ari (amorragarria da, bai, tabako enpresetako kimika departamenduen esku izatea gure nikotinomania), baizik eta zaleentzako errespetua eskatzen. Nikotinomanoari ez zaio nahikoa jakitea non ezin duen erre, non erre dezakeen ere jakinarazi behar zaio.

Tabakoak hil egiten du, hala nola larregiko lanak, zarata gehiegiak, bizimodu aspergarriak edo auzo begiluzeegiek. Erretzaileen keak kalte egiten dio ingurukoari; ez dakar kalte gutxi inguruan zure zaletasunen bat deabrututa daukan norbait jasateak. Ia beti dator ondo klasikoaren esana: "Lasai bizi, eta utzi lasai bizitzen" (baita erretzaileak ere).

Berriz ere, debekua. Zergatik? Zertarako?



IÑIGO GARITANO
Abokatua

Berriz ere, debekua. Oraingoan lantokietan erretzeari tokatu zaio. Zergatik? Zertarako? Erretzeak orain irudi txarra ematen duelako? Gure osasun fisikoaz arduratzen direlako? Ez-erretzaileen eskubideak babesteko? Erretzeak dakartzan gaixotasunen ondorioz osasun sistemaren gastua gorantz doalako?

Proposamena (mehatxua, hobe esanda) nondik datorren ikusita nire lehenengo erreakzioa ezezkorra izan da. Ezin dut ahaztu Estatuko Osasun ministro horrek zer-nolako jokabidea erakutsi duen: behi eroen krisian izan duen portaera axolagabea, KPI delakoa kalkulatzeko tabakoaren gastua ezabatzeko iragarri berri duen proposamena, kontzeptu moralak eta ekonomikoak behin eta berriz nahastuz, Estatuak berak tabakoaren salmentan zerga bidez dituen diru-sarrerak, etab.

Goienkariak nire iritzia plazaratzeko ematen didan aukera ez dut erabiliko erretzearen apologia egiteko. Erretzea osasun fisikoarentzat ez dela mesedegarria, txarra dela, onartzen dut. Aldiz, zigarro bat pizteak eta erretzeak plazerra ematen didala aitortu beharra dut. Hala ere, inolako ahaleginik kostatuko ez balu, atsegingarri bezain kaltegarria den ohitura hori berehala utziko nukeela ere uste dut.

Debekua ezartzea neurririk errazena da agintea duenarentzat. Gainera, hiritar askoren aurrean erabaki irmoak hartzeak politikoaren irudia indartzen omen du: ziurtasuna eta ausardia erakusten du. Hori bai, ikustear dago lantokietan erretzea arau zigortzaile baten bidez debekatzeak esaten diren emaitzak lortzeko balio izango duen. Aldiz, erretzaile eta ez erretzaileen artean lantokietan akordioetara iristea ez da planteatu ere egiten. Zergatik ez? Ez al litzateke posible izango lantoki bakoitzean, beste hainbat aspektu hitzartzen diren moduan, tabakoaren kontsumoa adostea? Elkarrizketa nahitaezkotzat aldarrikatzen dugun herri honetan ez al litzateke adibide izango erretzaile eta ez erretzaileen artean lantokietan adostasunetara iristea, elkarbizitza normalizatura iristea, alegia, guztion eskubideak errespetatuz? Galderak hor daude. Erantzunak (eta keak), kantuak dioen bezala, airean.

"Nikotinomanoari ez zaio nahikoa jakitea non ezin duen erre, non erre dezakeen ere jakinarazi behar zaio"

"Ez al da posible lantokietan, beste hainbat gai hitzartzen diren moduan, tabakoaren kontsumoa adostea?"

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA — Iritzia emateko: iritzia@goicna.com

Zerk oztopatzen du ELA eta LAB sindikatuen arteko lankidetza?

Gora eta Behera

LHT-REN AURKAKOAK

Gure bailara zulatu, zatitu eta hondatuko duen Lastertasun Handiko Trenaren aurkako indarrak batzen hasi dira. Trena bezala, Poltroneroak eta honen kontura aberastuko diren laguntxo denak ez dira bailaran gelditukо. Gu bai. Aupa herria poltsikoaren gainetik maite dutenak!

NON DAGO EUSKAL LIGA?

Athleticek galtzea, Realak Osasunarekin galdu ahal izateko. Honela, Hego Euskal Herriko lau taldeek Espainiako ligan jokatzen jarraitu ahal izateko. Hau da kirol espirituaren eredua! Hau da Euskal Herria eraikitzea! Non dago euskal liga? Eta euskal selekzioa? Edo abertzale denok futbolean espainol izateaz harro zaudete?

ANDER ELORTONDO
AED elkarteko teknikaria

Koplak

Bukatu da Giroa

Hiru astean jardun ondoren
bukatu zaigu Giroa.
Azkenerako nahiko nahastu
bazaigu ere giroa.

Polizi pila hoteletara
sartu ta hura kontrola!
Arrastoren bat bazuten, norbait
kontrolik gabe zegola.

Sailkapenean bigarren zena
kontrol horretan erori,
dena nahi dunak dena galtzen du
aspaldikoa da hori.

Dena pasa ta gero jartzean
podiumera begira,
itsutzekoa ere badegu
eskaini digun distira.

Euskal Herria txikia dela
guztiok gera jakitun,
baina Giroan puntaren puntan
hirutatik bi euskaldun.

Ai, podium bat ederragorik
Simonirekin nork osa.
Alde batetik Olano eta
beste aldetik Osa!

JOSE LUIS GORROTXATEGI

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA: Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA: Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
ADMINISTRAZIOA: Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar
PUBLIZITATEA: Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga
SAILETAKO ARDURADUNAK: Edu Mendibil (Kirola, Non Zer), Aintzane Irizar (Berri-Zakua), Iker Barandiaran (Asteko gaia), Goio Arana (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PRODUKZIOA: Iban Arantzabal
HARPIDETZA ETA BANAKETA: Aitziber Langaran
TESTUEN ZUZENKETA: Sergio Azkarate, Gari Bragado
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Ferrerias kalean etxebizitza salgai. 100m², 3 logela, sala, sukaldea, 2 komun eta 25m2ko terraza. Berogailua eta guztiz jantzita. Komunitate gastu txikiak. 656 77 46 60.

Arrasate. Obenerrekan 78m²ko etxea salgai. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, balkoia eta ganbara. 943 79 34 58.

Bergara. Zubiaurren 82m²ko etxebizitza salgai. 943 76 46 90.

Arrasate. Erdigunean etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. 82 m². 943 77 10 18.

Arrasate. Erdialdean 97m²ko etxebizitza salgai. Jantzita, hiru logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua, balkoia eta ganbara. 943 79 87 95 / 616 24 08 04.

Bergara. Zubiaurren etxebizitza berria salgai. 80 m². hiru gela, bi komun, sukaldea, egongela, sarrera, terraza, berogailua eta igogailua. 630 50 56 16.

Bergara. Berritutako teilatupea salgai. 653 73 05 75.

Jaca. Etxebizitza berria salgai. 2 logela, garajea eta trastelekua. Igerilekua urbanizazioan. 617 74 99 95.

Bergara. Apartamentua eta garajea salgai. 943 27 01 61 / 943 37 60 12.

Arrasate. Makatzenan etxebizitza salgai. Bi logela, egongela, sukaldea, jangela, harrera, ganbara eta berogailua. 70 m². 943 79 95 89 / 943 79 50 92.

Arrasate. Musakolan 110 m²-ko etxebizitza salgai. Laugarren pisua, igogailuarekin eta leiho guztiek kanpoaldera ematen dute. Berogailua eta erdi jantzita. Lau logela, egongela, sukaldea, bi komun eta bi balkoi. Berehala sartzeko moduan. 37,5 milioi. 943 79 27 88.

Bergaran etxea salgai. Martokuan. 943 76 08 08 / 677 79 66 24.

Arrasate. Ulibarri etorbidean 74 m2ko etxebizitza salgai. egongela, 4 logela, sukaldea, 2 komun, balkoia eta ganbara. Jantzita eta igogailuarekin. 943 79 40 44.

Oñatin etxebizitza salgai. 86 m2 garajearekin. erreforma eginda. 29 milioi. 943 78 05 96.

102. EROSI

Bergara. 120m² edo gehiagoko etxebizitza erosiko nuke. 636 45 57 18.

103. ERRENTAN EMAN

Torrevieja (Alacant). Apartamentua alokagai. 150 m². Bi logela, jangela, egongela... 943 77 03 85.

Donostia. Alde zaharrean ganbara alokagai ikasleendako. 943 76 27 96. Deitu 22:00etatik aurrera.

Salou. Ekainean, uztaila eta abuztuan apartamentua errentan ematen da. 943 79 88 50 edo 655 74 42 50.

Cullera (Valentzia). Apartamentua alokagai uztaileko 2. hamabostaldian. Hondartza ondoan. Garajea eta igerilekua. 943 79 93 86 / 600 84 86 02.

Torrevieja. Apartamentua alokatzeko moduan. 943 79 52 94. Arantza.

Aretxabaleta. Etxebizitza alokagai. Hiru logela, jangela, egongela, sukaldea, bi komun. Berria eta estreinatu bakoa. (21:00etatik aurrera). 943 79 63 49.

Donostia. Bi etxebizitza ditugu alokairuan udarako (hilabeteka edo hamabostaldika). Hondartzatik 10 minutura oinez, Egia auzoan. Batak bi logela ditu eta besteak hiru. 617 74 95 09. ELENA edo IÑAKI.

Torrevieja (Alacant). Apartamentua alokatzeko moduan hondartzatik oso hurbil. Guztiz jantzita. Hilabete osorako edo hamabostaldirako. 943 78 14 72.

Arrasate. San Andres auzoan etxebibitza alokagai. Hiru logela eta igogailua. 653 74 65 65 asteburuetan edo gauetan deitu.

Arrasate. Erdialdean 80 m²ko etxebizitza jantzita alokagai. hiru logela, egongela eta komuna. 656 78 69 49 Maribel.

Donostia. Etxebizitza alokatzen dut Grosen abuztuko bigarren hamabostaldian. Hondartzatik bi minutura. Deitu 943 77 21 28 telefonora edo mezua utzi.

Benidorm. Apartamentua alokairuan. 943 74 06 28 / 943 76 40 44.

Laredon hondartza ondoan dagoen apartamenrua alokagai. Uztailean eta irailean. 943 79 52 80.

104. ERRENTAN HARTU

Oñati. Etxebizitza hartuko genuke errentan. 653 74 87 51.

Arrasate. Hiru ikaslek alokatzeko etxebizitza bila dabiltza. 626 59 70 59.

Arrasate. Laugarren mailako hiru ikasle etxebizitza bila dabiltza datorren urterako. Ahal dela, Eskola Politeknikotik gertu. 678 37 21 72.

Debagoiena. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Beste norbaitekin bizitzeko prest nago. 943 79 31 77. Itxaso.

Arrasate. Arrasaten pisua alokatuko genuke 4 ikaslek datorren ikasturterako. 652 76 43 40 / 679 35 14 97.

Arrasate. Lau lagunek etxebizitza alokatzea nahi dute. 670 40 19 59. Imanol.

Arrasate. Irailetik aurrera etxebizitza bila gabiltzan hiru ikasle gara. 676 63 79 59. Iñaki.

105. ETXEA OSATU

Eskoriatza. Logela alokagai. Sukaldea erabiltzeko eskubidea. Garbitasuna eginda. 943 71 55 01.

Aretxabaleta. Lau logela alokagai, sukaldea erabiltzeko aukera eta garbiketak eginda. 943 79 05 26.

1. ETXEBIZITZAK
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA
501. ESKAINTZAK
502. ESKAERAK
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK
801. SALDU
802. EROSI

803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako deiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71

Zure iragarkia 60.000 lagunek irakurriko dute!

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 1.500 PTA (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Arrasate. Logela bat alokatu nahi nuke. 943 79 54 31.

Arrasate. Emakume batek pisukideak aurkitu nahi ditu etxebizitza konpartitzeko. 943 77 17 59.

Arrasate. Alde zaharrean pisua osatzeko lagun bat behar da. 626 71 96 84. 21:00etatik aurrera.

106. DENETARIK

Harrizko lursail itxia salgai. 3.500m². Etxe zahar bat dago hantxe, hura ere harrizkoa. 945 26 33 57.

Lursail itxia salgai. Errepide batek mugatzen du alde batetik, eta bestetik erreka batek. 16.230 m². 945 26 33 57.

2/ GARAJEAK

201. SALGAI

Arrasate. Garajea salgai Musakolan, Santa Teresa elizaren ondoan. 626 36 55 56.

203. ERRENTAN EMAN

Oñati. Portukalen garajea dugu errentan emateko. 943 78 23 91.

204. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Gazte talde batek lokala edo garajea errentan hartuko luke, prezio onean. 943 79 64 46.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Arrasate. Kalealdean lokala salgai. 70 m². 943 79 76 95.

Bergara. Arrillaga industrialdean 134m2ko lokala salgai. 670 73 95 36.

Aretxabaleta. Loramendi 13an, 275 m²ko lokal ederra salgai. Ur, argi eta gasaren instazioak eginak ditu. Prezio interesgarria. 943 79 18 42, 943 79 66 11 edo 943 79 30 56.

Arrasate. Obenerrekan lokala salgai. 34 m². 943 79 34 58.

304. ERRENTAN HARTU

Bergara. Gazte talde batek lokala behar du. 943 76 00 90. Susana.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Geriatria eta klinika laguntzailea gertu gaixoak eta pertsona zaharrak etxean edo ospitalean zaintzeko. 609 77 01 33.

Arrasate. Arratsaldez umeak zaindu edo orduka lan egiteko emakumea gertu. 943 71 53 74.

Bergara. Pertsona edadetuak zainduko nituzke. 943 76 09 95. Felisa.

Arrasate. Neska euskaldunak lan egingo luke uztailean. Umezain edo kamarera. 943 79 60 02. Jone.

Apotzagako San Migel
MERENDEROA ALOKAGAI
943 71 49 96

BERGARA
SALDU EDO ALOKATU EGITEN DA (ESKUALDATZEA ORDAINDU BARIK) BERRITUTA ETA OSO ONDO DOAN ARRAINDEGIA
943 76 01 56
656 75 48 94

Garraio enpresa batek GIDARI EUSKALDUNA BEHAR DU.
C klaseko gidabaimena beharrezkoa da
609 47 94 43

BIKO taberna
Pertsona bat behar da SUKALDEAN lan egiteko.
943 76 71 19

Arrasate. Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak orduka egiteko. Goizez eta arratsaldez. Irailetik aurrera. 652 76 21 63.

Bergara. Umeak zaintzeko prest nago. 943 76 32 78.

Bergara. Astean hiru egun 2 orduz lan egiteko prest nago. 943 76 36 68.

402. ESKAERAK

Bergara. Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 33 26. Gauez deitu.

Bergara. Emakumea behar da arratsaldez (16:30etik 19:00etara) umeak zaintzeko. 616 59 20 18. Deitu gauez.

Arrasate. Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 79 01 84 / 943 79 52 80.

Arrasate. Pertsona arduratsua behar da etxeko lanak egin eta neskatila bat zaintzeko. 943 79 94 31.

Antzuola. Emakumea behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 78 71 25 / 943 76 61 76.

Aretxabaleta. Andre bat behar dugu 10 eta 4 urteko mutikoak zaintzeko. 943 77 06 40.

Arrasate. Emakumea behar dugu bi ume arratsaldez zaintzeko, irailetik aurrera. 943 79 64 04. Deitu gauez.

Bergara. emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 15 61. Gauez deitu.

5/ IRAKASKUNTZA

501. ESKAINTZAK

Arrasate. Biologia lizentziadunak matematika, kimika eta biologia eskolak emango lituzke. 620 01 13 32.

Oñati. Uda partean eskola partikularrak emango nituzke. Kimika, fisika eta matematika. 943 78 31 84.

Uztailean LH eta DBHko klase partikularrak emateko prest nago. Iluntzean deitu. 943 79 33 39.

Ingelesezko eskolak ematen ditut. Talde mugatuak. Egun osoan. 943 79 18 70 / 696 38 16 49.

502. ESKAERAK

Uztailean eta abuztuan, ekonomia-kontabilitate enpresarialeko irakaslea behar dut. 943 77 17 25. Ilunkeran deitu.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Kawasaki GPZ 500 motoa salgai. Berrikusi berria eta egoera onean. 943 76 71 21.

Suzuki Samurai Hard Top 4x4 autoa salgai. Egoera ona. 658 72 11 52.

Peugeot 205 Diesel salgai. Oso prezio onean. 657 72 57 63.

Renault Express mistoa salgai. SS-AX 4 urte. 943 79 09 31.

Ford Fiesta autoa salgai. SS-AU. 57.000 Km. Oso egoera onean. 943 79 44 07.

Galopper Santano 2000 monobolumena salgai. 2 urte. 42.000 km. 1.700.000 pta. 943 76 23 01.

OPEL ASTRA salgai. 1,7 TD. 85 CV. SS-AW (1996). Beltza, hiru ate. Egoera onean. 676 975 441 / 94 658 30 02.

Honda Dominator 650 cm3 motoa salgai. Egoera onean. 943 78 11 88.

Honda CB 500 cm³ motoa salgai. Berria, zozketan irabazitakoa. 639 74 77 61. Juan.

Scooter motoa saltzen dut, prezio onean: 100.000 pezeta. 943 77 14 57.

Karabana salgai. Roler Sevilla. erdi berria. 5 lagunentzako tokia. 750.000 pta. 629 46 22 97.

Opel corsa 1,5 diesela salgai. Bi-AZ. Egoera onean. 699 00 53 44.

Motorra salgai. Beta ARH 50cc. Urez hozten dena. 943 79 93 19.

Opel Cadet 1.8 salgai. Egoera oso onean. 200.000 pta. 696 48 94 72.

602. EROSI

Bultako, Montesa edo Ossa mendiko motorra erosiko nuke. 656 75 76 98.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Arrantzarako kanabera salgai, osagarriak eta guzti. 35.000 pta. 943 76 47 82.

703. EMAN

Txakurkumeak opari. Ama euskal artzain txakurra da. 943 76 29 67.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Gurdi denda. Gurdi denda salgai. Egoera onean. 160.000 pezeta (beharrezko osagarriak barne). 09:00etatik 14:00etara 943 71 98 11 eta 22:00etatik aurrera: 943 79 51 19.

Philips CDR 775 erabili gabeko compac-disc grabagailu bikoitza salgai. Autonomoa da. 49.000 pezeta. 657 70 84 48. Deitu 19:00etatik aurrera.

Cherny markako pianoa salgai. 180.000 pezeta. 943 79 14 67 edo 655 70 35 98.

Gurdi denda. Gamo modeloko Imar markako gurdi denda salgai. 943 76 42 90.

Izozkailua. Zazpi kaxoi ditue izozkailu ia berria salgai. 652 75 55 13.

Soinekoa. Jesus del Pozo diseinatzailearen emaztegai-soinekoa salgai. 943 59 44 89 (14:00-16:00 eta 21:00-22:00).

Kanpadenda salgai. Mckinley Nepal Plus bi lagunendako. 3,2 kilo. Ia-ia berria. 20.000 pta. 943 79 81 59 / 9948 23 42 38.

"Gitarrista" aldizkariak saltzen dut. 2tik 30 era 24. zenbakia ezik. CDak barne. 11.000 pta. 65 27 33 825

"Gitarra totál" aldizkaria salgai. 1-18 zenbakiak. CDak barne. 7.000 pta. 65 27 33 825.

802. EROSI

Motxila. Umea mendira eramateko motxila erosiko nuke. 943 76 51 96. Lourdes.

Ordenagailua. Bigarren eskuko ordenagailua erosiko nuke. 943 79 97 96. Deitu 20:00etan.

Txakurrak eramateko autoarendako, gurdia erosiko nuke. 676 37 96 36.

806. GALDU

Antzuola. Txamarra berde kakia galdu nuen domekan. 943 76 62 46. Udaletxea.

Arrasate. Astelehenean Zaldibarren hoboe bat (instrumentoa) ahaztuta utzi nuen. 943 77 04 70.

Bergaran jertsea galdu dut. Marroi argia. Migel altuna bwerriaren inguruan. 943 76 02 27.

Arrasate. Astelehenean argazki kamara berri bat galdu nuen san Andresen. Oso ondo eskertuko da. 943 79 24 20 / 943 79 51 84.

807. AURKITU

Bergara. Tximeleta inguruan monedero bat aurkitu nuen domekan. 943 76 00 20.

Antzuola. Urrezko eskumuturrekoa, txano zuria eta gitza sorta topatu genituen domekan, Haur Dantzarien Egunean. 943 76 62 46. Udaletxea.

9/ HARREMANAK

CLUB YOLA
Elgetara bidea
BERGARA
943 76 11 22

NIKITA
NIKITA Konpainia egiteko andereñoak. Atseginak eta alaiak. **943 46 69 89.**
NIKITA Diskrezio osoa, gustu onari dagokion moduan. Erosoa, kopa, bideoa eta ur-ohea. **943 46 69 89.**
NIKITA Zu ondo sentiarazteko, edozer egingo duten andereñoak. **943 46 69 89.**
NIKITA Strip-tease beroak.
NIKITA Hotelera eta etxebizitzara ere joan gaitezke. **VISA 943 46 69 89**

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU.
GAINERAKOAK, 1.500 PTA (+BEZ) ORDAINDU
BEHARKO DITUZUE MODULUKO.

Arrasateko Ibai-ondo etxean jaio zen, Uribarri auzoan. Gaur egun, berriz, San Andres auzoan bizi da, emaztearekin eta alabarekin. Musika du zainetan txiki-txikitatik. Musika ikasketak egin zituen Donostian eta musika irakasten du, dagoeneko 20 urtez, Arrasate Musikalen. Oraindik orain premia bereziak dituzten umeentzako musika metodo bat argitaratu du, Ostadarraren Hotsaz, Aschero sisteman oinarrituta.

JOXE ARANZABAL

JUAN MANUEL BERRUETA

Jose Ramon Vitoria

MUSIKA IRAKASLEA ETA "OSTADARRAREN HOTSAZ" LIBURUAREN EGILEA

"Pentagraman oinarritutako sistemaren ondoan, Aschero sistema oso praktikoa, zuzena eta erraza da"

HEZKUNTZA BEREZIA

"Irakasle moduan izan dudan esperientziarik ederrena izan da niretzat Hezkuntza Berezia. Irakaskuntza zer den jakiteko oso ona izan da"

ASMOAK

"Hurrengo metodoa Hirugarren Adinekoentzat egingo dut. Seguru nago sekulako arrakasta izango lukeela zaharren artean"

Zer da Aschero musika sistema?

Musika jotzeko kode berri bat. Historian sistema asko erabili izan dira musika ikasteko eta bat nagusitu da, pentagraman oinarritutakoa. Ascherorena beste bat da, zientzia kode batean oinarritua. Musikaren lau ezaugarriak jasotzen ditu, baina beste modu batean: altuera, kolorez; intentsitatea, irudiaren tamainaz; iraupena, soinuaren laburraz edo luzeaz; eta tinbrea, instrumentuaren arabera. Sistema honekin askoz ere jende gehiagorengana irits daiteke musika.

Nor da Sergio Aschero?

Argentinako musikologo bat, 60 bat urte edukiko dituena. Gazte zela, doktoretza-tesia egiteko Amazoniara joan zen, hango tribu baten musika aztertzera. Orduan konturatu zen pentagrama erabiliz ezin zuela jaso haien musikan antzematen zuen aberastasuna. Ondorioz, sistema berria asmatu zuen, gaur egun bere izena daramana.

Zergatik sortu zuen musika sistema hori?

Azken urteotan musika erakusteko metodo asko asmatu dira (Suzuki, Kodali...), baina guztiak pentagraman oinarritu dira. Eta hortxe dago koska. Sistema hori oso zaila da eta horrek esplikatzen du musika irakaskuntzaren porrota. Baldintza asko bete behar dira sistema hori ondo jakiteko eta gustuz erabiltzeko. Horren aldean, Aschero sistema oso praktikoa, zuzena eta erraza da. Jende asko ikusi izan dugu, bestalde, solfeoa jakin barik, musika ezin ederragoa egin dutenak. Zerbaitegatik izango da.

Zuk noiz izan zenuen sistema horren berri?

Orain zazpi bat urte. Arrasate Musikaleko zuzendari nintzela, ikasle baten ama —Delia Agirre— etorri zitzaidan, esanez musika irakatsi nahi ziola down sindromea zuen alabari. Baten batek Aschero sistema erabiltzen ei zuen. Txiripaz, Aschero bera Madrilen zegoen. Hona etortzera gonbidatu genuen. Asteburu batean ikastaroa antolatu eta orduan azaldu zigun 70 bat laguni bere sistema.

Zer dela eta behar izan da hainbeste denbora Aschero sistemaren berri izateko?

Musikariok kontserbatorioetan ikasten dugu. Betiko kontuak irakasten dira hor. Gure arteko sistema oso tradizionala da eta zaila izaten da berritasunen berri izatea. Batzuek uste dute Mozarten musika, esaterako, pikutara joan daitekeela sistema horrekin. Eta ez da egia. Bestetik, musikaren inguruan sortu den eliteak zerbait galtzen du horrelako sistema bat hainbeste jenderengana zabaltzen denean.

Euskal Herrian non erabiltzen da Aschero sistema?

Modu sistematikoa, Arrasaten. Oraingoz hamalau ikasle ditugu: sei Gasteizkoak, hiru Oñatikoak, bat Aretxabaletakoa eta lau Mondragoekoak. Dena dela, Hik Hasi elkarteak antolatzen dituen ikastaroetan zabaltzen ari da horren berri.

Zer harrera izan du Aschero sistemak hemen?

Ona. Hasieran, jakina, erresistentzia nahikotxo izan genituen, irakasleen partetik batez ere. Baina Santo Tomasek bezala, ikusi eta gero konbentzitu egin ziren. Aschero sistema bat da. Berak esaten zidan moduan, orain metodoak falta dira, premia desberdinetara egokituko diren metodoak.

Ostadarraren Hotsaz, orduan, zer da, musika metodo bat?

Premia berezietara egokitzen den liburua. Edo zehatzago esateko, Euskal Herrian premia bereziak dituzten neska-mutikoentzako ikasliburua. Lau mailatan sailkatu dugu, progresiboak. Hemengo kantuak, Euskal Herrikoak, sartu ditugu, musika ezaguna bada, ikasleak askoz ere errazagoa izango duelako musika eta metodoa bera barneratu eta bere egitea.

Umeak dira, hortaz, liburu horren hartzaileak?

Premia bereziak dituzten umeak, bereziki. Dena dela, sinistuta nago metodo hori ere erabil daitekeela gure adineko jendearekin. Hurrengo metodoa Hirugarren Adinekoentzat egingo dut. Gero eta jende gehiago ari da biltzen multzo horretan, eta seguru nago Aschero sisteman oinarritutako metodo batek sekulako arrakasta izango lukeela zaharren artean.

Hezkuntza Bereziko musika irakasle zara.

Nahiz eta gogorra izan, irakasle moduan izan dudan esperientziarik ederrena izan da niretzat Hezkuntza Berezia. Irakaskuntza zer den jakiteko oso ona izan da.

Zer ematen die Aschero metodoak behar bereziak dituzten umeei?

Komunikatzeko bide bat, nagusiki. Bestela irekitzea asko kostatzen zaien atea zabaldu diegu. Metodo horren bidez igartzen dugu autoestimua ere izugarri indartzen zaiela, sormenarekin eta irudimenarekin batera. Eurek eskatzen digute kontzertuak antolatzea. Horrek sekulako kontzentrazioa eskatzen die, baina prest egoten dira ahalegina egiteko. Egin dudan liburuan, esate baterako, Josu Jauregi down sindromea duen gaztetxoak egindako abestia sartu dugu. Berak konposatu du bai musika baita letra ere, ordenagailuak lagunduta. Sistema horrek askatu egiten ditu ikaslearen ahalmenak.

Nolakoak dira Arrasate Musikalen dituzun ikasleak?

Down sindromedunak, buru atzerapenak dituztenak, garun paralisiak jotakoak eta autista bat. Oso desberdinak dira. Bakoitzak bere mundua du, bere premiak... Horregatik, lehen eskolak bakarka ematen diet, bakoitzari hobeto erantzuteko. Gero, poliki-poliki, elkartu egiten ditut. Ikasle autistak ez du hitz egiten, baina musika bidez komunikatzen dugu elkar. Teklatua erabiltzen dut musika bidez "egun on" esateko. Bera ere teklatuan jartzen da eta "egun on" erantzuten dit, musika erabiliz. Hunkigarria da, benetan.

Aschero metodoa behar bereziak dituzten umeentzat da soilik?

Ez, ez. Edozein umek ikas lezake metodo horren bidez. Ni ere harrituta geratu naiz neure alabarekin izan dudan esperientziaz. Askok uste dezakete premia bereziak dituzten umeentzat bakarrik izan daitekeela egokia, ez bestelako umeentzat, akaso uste dutelako metodo horrekin hasiz gero, denbora galtzen ibiliko direla. Oinarri bako beldurrak dira horiek.

Era guztietako musika ikas daiteke metodo horrekin: euskal musika, rocka, klasikoa...?

Era guztietakoa. Esatea besterik ez duzu zer musika mota nahi duzun eta egin. Aschero sistemak ez du mugarik.

Zer asmo dituzu geroko?

Orain arte lau maila landu ditut. Bosgarrena eta seigarrena lantzen ari naiz, metodoak jarraipena izan dezan. Bestetik, ume hauen integrazioa bultzatu nahi dut, gainerako ikasleekin batera jo dezaten jendaurrean. Hirugarren adinekoentzako metodoa ere egin nahiko nuke. Eta azkenik, doktoretza tesia egin nahi dut. Orain arteko lanaren azterketa egin nahi dut tesi horretan. Okerrik ez bada, bost urte barru-edo amaituko dut.

Hector Llanos eta Virginia Berasategi izan ziren garaile Debagoieneko I. Triatloian

Parte hartzaile eta ikusle mordoa izan ziren eguraldiak lagundu ez arren

Pasa den larunbat arratsaldean jokatutako Debagoieneko lehen triatloia arrakastatsua izan zen. Urkuluko urtegian izan zen irteera eta jende mordoa bildu zen 150 triatloilarien lana ikustera. Igerian egin beharreko kilometro eta erdia osatzen lehena Hector Llanos izan zen eta froga bukaerara arte ez zuen lehen postua utzi. Triatleta gasteiztarrak aitortu zigun aurretik pentsatuta zeukala lasterketa horrela egitea: "Nire taktika horixe zen, igerian aurrea hartu eta bukaerara arte mantendu. Zorionez ondo atera zait eta oso pozik nago". Llanosek ordubete, 52 minutu eta 38 segundo behar izan zituen Debagoieneko lehen triatloia osatzen, eta erakutsi zuen benetan sasoiko dagoela. Bigarrenari, Ciro Tobar bere taldekideari 4 minutu eta 50 segundo atera zizkion Llanosek. Hirugarren posturako esprint estua izan zen Garikoitz Etxebeste eta Jon Aperribai mondragoetarraren artean. Azkenean, Aperribaik laugarren postuarekin konformatu behar izan zuen. Dena dela, lasterketa bikaina egin zuen, batez ere b izikleta gainean denborarik onena egin baitzuen. Jonen esanetan, "helburua 10 lehenengoetan sartzea zen, eta hori bete dut. Hirugarren postua eskura izan dut, baina laugarrenarekin ere oso gustura nago".

Partaideek igerian 1,5 km, bizikletan 40 eta korrikan 10 egin zituzten. ANARTZ AGIRRE

Emakumezkoen mailan aise lortu zuen Virginia Berasategik gailentzea. Bigarren Sara Alonso sailkatu zen eta hirugarren berriz Lurdes Balza de Vallejo. Berasategik lasterketa amaieran adierazi zigunez, "urteko lehen triatloia izaki zalantzak nituen, baina oso ongi ibili naiz eta gustura nago egindako lanarekin".

Debagoieneko I Triatloian parte hartu zuten denek aipatu zuten zirkuituaren gogortasuna. Botatako euriak eta une batean jausitako txingorrak lasterketa are gogorragoa egin zuen. Dena dela, lasterketa arrakastatsua eta polita izan zen. Urkuluko urtegian irtendako 150 kirolarietatik 132 iritsi ziren Arrasateko helmugara, tartean baita debagoiendar mordoa ere. Debagoieneko kirolariak ondo ibili ziren, Jon Aperribai arrasatearra laugarren sailkatu zen, Julen Garitano Bergarako Antxintxika taldeko kidea seigarren eta Aitor Larrea antzuolarra berriz hamaikagarren.

ANARTZ AGIRRE

Sailkapena

MUTILAK

1-Hector Llanos	1:52:38
2-Ciro Tobar	1.57:28
3-Garikoitz Etxebeste	1:57:59

NESKAK

1-Virginia Berasategi (26)	2:09:53
2-Sara Alonso (64)	2:21:44
3-Lurdes Balza de Vallejo (86)	2:28:25

DEBAGOIENDARRAK

1-Jon Aperribai (4)	1:58:01
2-Julen Garitano (6)	2:02:52
3-Aitor Larrea (11)	2:05:03
4-Zuhaitz Ezpeleta (19)	2:06:04
5-Aitor Rementeria (35)	2:12:17
6- Ricardo De Goñi (36)	2:12:42
7- Alejandro Altuna (44)	2:15:11
8- Aritz Kortabarria (49)	2:18:01
9- Josu Odriozola (51)	2:18:11
10- Xabier Uribesalgo (60)	2:20:45
11- David Berezibar (63)	2:21:09
12- Oier Etxebarria (69)	2:24:00
13- Iker Larrea (72)	2:24:42
14- Joseba Zuzaeta (79)	2:27:13
15- Jesus Cantero (85)	2:28:21
16- Esteban Lazkano (87)	2:28:51
17- Zigor Jimenez (107)	2:37:00
18- Iker Zabarte (115)	2:40:11
19- Asier Barrainkua (125)	2:45:12
20- German Goiria (126)	2:49:16
21- Maite Rementeria (132)	2:54:59

Kirolabur

BERGARA/
PILOTA

Erroizenea eta Oteiza, promesa mailan, eta Mikel eta Casado, seniorretan, Bergara Hiria pilota txapelketako finalerako sailkatu ziren martitzenean, Moran-Gurrutxaga eta Muguruza-Mendiluze bikoteak gainditu ondoren, hurrenez hurren. GOITBk datorren martitzeneko finalerdiak eta ekainaren 29ko finalak emango ditu.

OÑATI/
ARKU TIRAKETA

Oñatiko plazan arku tiraketa erakustaldia egingo dute zapatuan, 18:00etatik aurrera. Nahi duen edonork izango du gezi batzuk jaurtitzeko aukera.

ARRASATE/
TXIRRINDULARITZA

Afizionatu mailako San Juan Txirrindulari sariaren 62. ekitaldia jokatuko da zapatuan. Proba eguerdiko ordubata aldera bukatuko da Garibai etorbidean.

OÑATI/
PILOTA

Domekan pilota jaialdia izango da Oñatiko Zubikoa pilotalekuan, 17:00etan. Berraondo-Apeztegia eta Galarza-Hirigoien bikoteak izango dira aurrez aurre eta Goñi II.ak eta Goñi III.ak Titin eta Zezeagaren aurka jokatuko dute.



Aitor Zabaleta garaile Gorlan

Aitor Zabaleta gidari bergararrak ez zuen areriorik izan zapatuan jokatutako Gorlako auto igoeran. Andres Vilariñok uko egin zion Bergarako proban parte hartzeari eta Zabaleta arazorik gabe nagusitu zen. Lola BMW barketa gidatuz, 3 minutu, zazpi segundo eta 61 ehuneneko denbora egin zuen Zabaletak. German Hernandez bergararrak (Renault Clio Williams) hirugarren postua lortu zuen (3:17:24) eta Juan Carlos Fernandez (Citroen AX Sport) eta Iker Bengoa (Citroen AX GT) atxabaltarrak 24. eta 31. tokian sailkatu ziren, hurrenez hurren.

Javier Otxoak hobera egin du azken hilabetean Aita Menni ospitalean

Javier Otxoa txirrindulariak komunikabideen aurreko agerraldia egin zuen joan zen eguenean Aita Menni ospitalean. Otxoa, joan zen maiatzaren 10ean ingresatu zuten Aita Menniko Garun-Kalte Unitatean. Eguenean Isabel Ternero bere neskalagunarekin agertu zen argazkilarien aurrean. Adierazpenik egin ez zuen arren, Juanjo Rementeria, txirrindulariaren ordezkariaren arabera, Kelmekoa bere kabuz jan eta zutik jartzeko gauza da eta bere pisua errekuperatzen ari da. Egunero errehabilitazio ariketak egiten ditu, goiz eta arratsaldez.

Podiuma

Markel Irizar | OLARRA TALDEKO TXIRRINDULARIA |

Markel Irizar 21 urteko txirrindulari oñatiarrak (Olarra-Ercoreca) Gipuzkoako erlojukontrako txapelketa irabazi zuen joan den astean Alegian, 23 urtetik azpikoen kategorian. Irizarrek, batez beste, 50,8 kilometro orduko abiadura markatu zuen ibilbideko 38 kilometroetan. Oñatiarrak bigarren urtez jarraian irabazi du erlojupeko Gipuzkoako txapelketa. Ekainaren 28an Espainiako txapelketan izango da, Leonen.

Irizarrek Espainiako txapelketan esku hartuko du. EDU MENDIBIL

Iaz ere txapeldun izan zinen Alegian. Badirudi hango zirkuituari neurria hartu diozula.

Gauzak uste baino hobeto atera zitzaizkidan. Lasterketaren bezperan igeltsuzko beso-euskarria neukan, ekainaren 1ean Nafarroako Itzulian jausi nintzelako. Etxean ere Alegiara ez joateko esaten zidaten, baina nahiko burugogorra naiz eta esku hartzea erabaki nuen. Denboraldiko helburuetako bat horixe nuen, Gipuzkoako txapelketa, eta oso pozik nago lortutako garaipenarekin, lesioagatik ez nuelako irabaztea espero. Gainera, iaz baino maila hobea egon da aurten, Euskadiko taldea osatzeko txirrindulari bizkaitarrak ere tartean zirelako. Horregatik guztiagatik, meritu handiagoa ematen diot aurten lortutako txapelari. Denboraldiko lehen garaipena izan da eta asko poztu nau.

Nola prestatu zenuen txapelketa?

Gipuzkoako txapelketarako entrenatzailearen autoaren atzetik 20 minutuko hiru serie egiten nituen, 54x11 garapenarekin eta, batez beste, 60 kilometro orduko abiaduran. Horrelako hiruzpalau entrenamendu egin nituen.

"Lasterketa bezperan igeltsuzko beso-euskarria neukan eta etxean ere esaten zidaten Gipuzkoako txapelketara ez joateko"

"Giroan gertatutakoa? Txirrindularitza kanpotik kutsatu dute. Kasu batzuengatik ezin da tropel osoa kriminalizatu"

Espainiako txapelketari begira, zein asmo?

Euskadi taldea ordezkatuz Iker Camaño (Baque), David Herrero (Olarra) eta hirurok goaz Leonera. Zapatuan izan nintzen han ibilbidea aztertzen, eta gustatu zitzaidan. Ez da oso zirkuitu gogorra, baina haizea dabil eta indarrarekin egiteko proba izango da. Helburu finkorik jarri gabe, ahalik eta sailkapen onena lortzea gustatuko litzaidake. Ea osasuntsu heltzen naizen, besoko erradio burua apurtuta daukat eta.

Denboraldiko zein sasoitan ibiltzen zara ondoen?

Udan. Jeneralean, kosta egiten zait sasoi ona hartzea. Dagoeneko 18.000 kilometro inguru daramatzat eta espero dut hemendik denboraldi bukaera bitartean lasterketaren bat irabaztea. Orain arte zorte txarra izan dut: osasun arazoekin ibili naiz eta 15 lasterketatan zortzi zulatu izan ditut.

Ulma-Cegasan bi urte eman ondoren, taldez aldatu zara aurten.

Ulma-Cegasan oso gustura jardun dut aurreko bi urteetan, gazte mailatik amateur mailara salto egiten genuen txirrindulariondako eskola ezin hobea izan delako. Hala ere, aurten taldez aldatzea erabaki nuen, Olarra-Ercorecak bestelako helburuak zituelako. Lasterketak irabazteak bakarrik balio du. Emaitzak hor daude: aurten 30 lasterketa irabazi ditugu, tartean Araba, Nafarroa eta Bidasoako itzuliak.

Amateur mailan izugarrizko lehiakortasuna dago.

Bai, lehiakortasuna handia da eta okerrena zera da, askotan zure lana ez dutela errekonozitzen. Nire ametsa profesionaletara heltzea da, baina badakit oso zaila dela, tropelean leku gutxi dagoelako.

Bukatzeko, zer deritzozu Italiako Giroan gertatutakoari? Kutsatutako kirola da txirrindularitza?

Kanpotik kutsatu dute. Kasu batzuengatik ezin da tropel osoa kriminalizatu. Frank De Boer Bartzelonako futbol jokalariak ere positiboa eman du eta ez zaio horrenbeste oihartzunik eman. Txirrindularitza nahiko gogorra da berez, artean tratu hori jasateko.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

Juan Zabaleta
Motokroslaria

Zabaleta Bergaran irabazitako proba baten ondoren.

Gipuzkoako motokros txapelduna izan zen

Bi urtetan irabazi zuen, 1972an eta 73an

Lesio batengatik utzi zuen motoa

Juan Zabaletak gogoratzen duenez, "motokrosak jarraitzaile ugari zuen 70eko hamarkadan eta Gipuzkoa osoan izaten ziren probak. Ordurako Agustin Lazpiur, Luis Berasategi, Linazisoro anaiak, Emilio Amasorrain eta beste hainbat ibiltzen ginen Bergaran mendiko motoekin, eta han eta hemen izaten ziren probetan esku hartzen hasi ginen. Oso oroitzapen ederrak ditut". Zabaletak 22 urterekin erosi zuen bere lehenbiziko mendiko motoa, Montesa bat. Lasterketetan, berriz, Bultaco Pursan bat erabiltzen zuen: "Urnietan, Irunen, Brinkolan edo Murgian antolatzen ziren probetara joaten ginen eta oso zirkuitu zailak ziren, salto askorekin. Saltoekin-eta askoz ere gehiago gozatzen zen motokrosean. Gurdi-bideetan, zelaietan eta egokitzen zitzaigun edozein tokitan ibiltzen ginen orduan motoarekin. Ausardia eta trebetasun pitin bat beharrezkoak dira motokrosean ibiltzeko. Agustin Lazpiur, adibidez, ni baino teknikoagoa zen, baina Luis Berasategi zen nire areriorik gogorrena". Zabaletak birritan irabazi zuen Gipuzkoako txapelketa, 1972an eta 73an: "Proba bakoitzean 30 bat partaide inguru biltzen ginen eta jeneralean hiru lehenengoen artean sartzen nintzen". 1973ko txapelketaren ondoren, ez zen motokros txapelketarik berriro antolatu.

Ehizan ari zela izandako istripu baten erruz, Zabaletak motoan ibiltzeari laga zion 1975ean. Oraindik ere moto proben jarraitzaile amorratua da: "Motoa beti izan da nire ametsa eta errepidean ere asko ibili naiz". Autoetan Ayrton Senna eta motoetan Michael Doohan izan dira bere faboritoak. Azken 13 urtean Rotulos Zabaleta enpresan dihardu lanean. /E.M.

"Gurdi bideetan, zelaietan eta egokitzen zitzaigun edozein tokitan ibiltzen ginen motoarekin. Saltoekin eta askoz ere gehiago gozatzen zen"


Juan Zabaleta • Osintxu • 1943



Nire Pronostikoa

JON BASURKO / Arrasate saskibaloi taldeko presidentea

Realak Bilbon lortu zuen mailari eustea eta ez dut uste txuri-urdinak dena ematera irtengo direnik Osasunaren kontrako partiduan. Osasunak lehen mailari eusteko beharrezkoa du garaipena eta euren alde egingo nuke. Alavesek eta Athleticek, aldiz, garrantzi bariko partiduak jokatuko dituzte jadanik 2. mailara jaitsi diren Numantziaren eta Racingen aurka. Bi partiduak berdinketarekin amaitu daitezke; Bartzelonaren eta Valentziaren arteko partiduan asko dago jokoan eta Bartzelonak txapeldunen ligan sartzeko garaipena lor dezake.

Oraingo astebukaerako partiduak

A/	Reala	1	Osasuna	2
B/	Racing	0	Athletic	0
C/	Numantzia	1	Alaves	1
D/	Bartzelona	2	Valentzia	1

Bergarako Pazkoetako BIDEOA salgai.

GOITBko *XELEBERRI* saioko bideoa salgai 1.000 pezetan!

Eskura ezazu BERRIGARAn!

Telefonoa: 943 76 03 97.

Irizar jauregia: Barrenkalea 33, Bergara.

Goitb
Goiena Telebista

Goienka 2a

Egubakoitza / 2001eko ekainaren 15a

Kultura eta Aisialdia

Ekainaren 15etik 22ra

Gure bailaran kaleak kartelez josita egoten dira: politikariez beteta izan ditugu gutxi arte hauteskundeak direla-eta. Orain politikarien aurpegiak hormetatik kentzen hasi direnean bestelako irudiek hartu dute lekua, alaiagoak dira, biziagoak, kolorez jositakoak eta JAIA berba bere dutenak. Zorionez, gainean dira jaiak! Bergarako jaien ostean, San Juanekin jarraitu, Elgetakoak, Aretxabaletako Andra Mariak... zirkuitu polita jairik jai ibiltzeko. Baina nola jakin jaiak han eta hemen direla?

Kartelak dira iragartzeko baliabideetako bat eta ez biderik makalena, horma guztiak kartelez "apaintzeak" izan behar du onurarik.

Gero eta gutxiago dira lehiaketa bidez egiten diren kartelak. Kalitate baxua egoten dela esan digute udaletako teknikariek. Guk lehiaketan dihardutenak ekarri ditugu bistara eta egileekin egon gara-zaletasun horren berri jakiteko asmotan. IBAN ARANTZABAL /14

Kartelak

Kartelak: herrietako jaiak iragartzeko modurik eraginkorrena

KARTEL LEHIAKETETARA GERO ETA JENDE GUTXIAGO AURKEZTEN DA. HAINBAT HERRITAN LEHIAKETARIK EZ KALITATE FALTA DELA-ETA

Kartelak modu askotakoak egiten dira, eta lehiaketak ere egiten diren arren, herri gehienetan lehiaketak egiten zireneko urteak atzean geratu dira. Horren arrazoia kalitate eza izan da.

Jaietako bereizgarri diren elementuekin egiten dituzte kartelak. Danbolinak, dantzariak, kiliki eta erraldoiak... denetik pixka bat. Erabiltzen duten marrazketa modua ere ezberdina da, Jose Luis Nafarratek arkatzak, eskuairak, erregelak... erabiltzen ditu, hala ere, gero eta tresna erabiliagoa Photoshop programa da. Sagua, pantaila eta teklatuak lekua jan diete arkatz eta bolalumari.

Gero eta jende gutxiago aurkezten da lehiaketetara, halaxe esan digu Antzuolako kultura teknikariak: "Gero eta jende gutxiago aurkezten da jaietako kartelen lehiaketetara. Azken bi urtean, behintzat, nahiko gutxi aurkeztu dira eta aurkeztu direnen artean ere ez dugu saririk emateko moduko kartelik jaso. Baldintza bakarra izaten da, ez dago adin mugarik, ez kolorerik, ez tamainarik ez antzerakorik ere. Baldintza bakarra jai girokoa izatea da, beste barik. Bost urte daramatzagu lehiaketa egiten eta espero dugu hurrengoan jende gehiagok esku hartzea". Antzuolan lehiaketa egiten da, baina Eskoriatzan, Gatzagan edo Elgetan, esaterako, ez dago horrelakorik. Elgetan, gaztetxekoek lagun artean egiten dute kartela eta atzo gauez oraindik azken ukituak ematen ziharduten. Eskoriatzan, Arantxa Unzuetak esan digunez, "lehiaketa egiten zen, baina parte hartze txikiak eta kalitate eskasak baldintzatuta orain udala arduratzen da kartela egiteaz. Azkeneko hiru urtean ez da lehiaketarik egiten".

IBAN ARANTZABAL

J. Mari Kalboetxeaga Bergara

Jesus Mari Kalboetxeagaren lana erabili dute oraintsu ospatu diren Bergarako Mendekoste jaien egitaraua iragartzeko. Udalak antolatutako lehiaketa irabazi du. Kalboetxeagak ordenagailua erabili du kartela egiteko, hain zuzen ere irudiak manipulatzeko Photoshop programa. Bergara eta jaiak ondo islatu eta uztartzen dituzten elementuak erabili ditu: udaletxea, dantzariak eta danbolinak. Koloreei dagokienez, berriz, urdina, Bergarako kolorea, eta beltza. Jesus Mari publizitatean lizentziatua da. Unibertsitatean ikasitakoa, kartelismoaren teknikak eta ordenagailuko Photoshop eta Freehand programak erabiltzen ditu kartelak, eskuorriak eta horrelakoak diseinatzeko. Izan ere, diseinu eta maketazio lanak egiten ditu Jesus Marik. San Ferminetako eta Donostiako Zinemaldiko kartelak ditu gustuko. "Aurtengo San Ferminetakoa gustatzen zait, sinplea baina polita da", esan digu.

Enrike eta Esteban Dolara / Arrasate

Kartel lehiaketak ez dira marrazkilari trebe edo Arte Ederretan lizentziadunendako bakarrik. Horren adibide, Arrasateko iazko jaietako kartelaren egileak. Gainera, kasu honetan, jaiekin oso harreman estua duten bi herritar ezagunek irabazi zuten lehiaketa: Enrike eta Esteban Dolara anaiek, Arrasateko gaiteroek, arreba Tererekin batera.

Arrasateko jaiak ez lirateke gauza bera izango gaiteroak irtengo ez balira. Baina dolararrek badute beste jarduera ezezagunagoa: diseinu industrialean egiten dute lan, nahiz eta, eurek dioten moduan, "kartel lehiaketa denbora-pasa besterik ez den". Iazkoa, hala ere, kiliki eta erraldoiei omenaldia izan zen. Honakoa diote eurek: "Kilikiak eta erraldoiak dira guretako jaietako gertakizunik bereziena. Erraldoiak ateratzeak eta dantzarazteak lana eskatzen du, eta erraldoien eta kilikien barruan dagoen pertsona hartu dugu kontuan".



Juan Luis Nafarrate Aramaio

Juan Luis Nafarrate aramaioarrak dio ez dela artista, "denok ditugu zaletasunak eta nik, batzuetan, horrelakoak lantzen ditut". Edozein modutan ere, orain dela pare bat urte "lantxo" batzuk aurkeztu zituen inguruko zenbait lehiaketetara, eta bi sari eskuratu ditu: logotipo batekin eta Aramaioko jaietako kartel batekin.

Ohiko teknikak, hau da, beti ezagutu ditudunak, erabiltzen ei ditu lanerako: erregelak, eskuairak, arkatzak... Kolorea emateko, berriz, errotulagailuak, akrilikoak, akuarelak, esponjak, trapuak... denetarik. "Probatzen ibiltzen naiz, hemendik ipini, handik kendu..." Irudiak proiektatzeko teknikak ere erabiltzen ditu, esaterako, baita argazkilaritzakoak ere; hori bai, ordenagailua ez du maite artelanetarako.

Ez du, gainera, artista edo marrazkilari ezagunik jarraitzen. "Inguruan dudana hartzen dut eredutzat".

Arrasateko aurtengo kartel irabazlea. Egileak: Atarratz Etxebarria eta Iker Aranburuzabala.



Kontzertua | **Lehengo eta oraingo punk taldeak elkartuko dira gaur Monterronen**

Porturen omenaldirako punk-a indarrean

Kontzertu berezia egingo dute gaur Monterron parkean. Duela lau urte, Eduardo Mancebo "Portu", Ripeko baxu jotzailea zena hil zen, eta bere lagunek omenaldia prestatu diote. 80 hamarkadako –RIPen garaiko– punk taldeekin kontzertu oso berezia antolatu dute 20.00etatik aurrera.

RIP arituko da, noski, eta baita Lekeitioko Ume Gaiztuak. Haueiin, Portuk RIP eten eta gero gitarra jo eta abestu egin zuen 90 hamarkadan. Punka baino, bertsoak eta rocka lantzen zituzten. Horra hor, *Ttipi Ttapa, Palestina* edota *Sikario* kantak. Maketa, single eta Cd bana utzi zizkiguten, eta tamalez, iaz, hauen baxu jotzaile Jokin zendu zen. Taula gainean, Etsaiakekoen laguntza izango dute.

Hauetaz gain, 80 hamarkada erdiko Eskoriatza-Arrasate eta Arrasabaletako Puñetazo Oi! taldea ere berpiztuko da, taldekide berrien batekin. Porru (ahotsa), Nabo (gitarra), Juanillo (baxua) eta Bañosek (bateria) *Gazteak gara* edota *Txayoak* abesti klasikoez gain, ia taldekide berak zituen Cirrosis talde punkaren bizpairu kanta (*Hijoputa, Tanborilero...*) ere joko dituzte. Cirrosisek oso ibilbide motza izan bazuen ere (81-83), Eskoriatzan, Arrasaten zein Errenterian, Odio, Basura, RIP, Eskorbuto eta Optalidonekin kontzertu pila eman zituen.

Eskoriatza-Arrasateko Herioza ere taula gainean ikusi ahal izango dugu. 80 hamarkada bukaeran sortutako talde honen partaideek –batez ere Xapu abeslariak– bat baino gehiago txunditu zuten hauen adin gaztearengatik. 92an, Aketo disketxearekin mini-Lp bat kaleratu eta gerora, punk-rocketik funkyra gerturatu eta Eskoriatza taldeko Errasti bigarren gitarra jotzaile zutela, Basati disketxearekin lan luze bat kaleratu zuten. 90 hamarkada erdialdean, berriz, jotzeari utzi zioten. Hala ere, iaz Arrasateko kiroldegian Pedrotxoren omenezko kontzerturako berriz elkartu eta sasoi onean daudela erakutsi ziguten.

Artxiboko irudian, Portu eta Ume Gaiztuak-eko taldekideak grabazio estudioan.

Horiek baino gazteagoak Eskorbutoren sasi-semeak, Eskizofrenia Rock taldeko partaideak dira. Igorrek (baxua), Ibaik (gitarra eta ahotsa) eta Dabidek (bateria) lauzpabost urte daramatzate punka jotzen. Dagoeneko maketa bat kaleratu dute eta diskoa kaleratzekotan daude.

Irun eta Errenteriatik ere badatozkigu batzuk: Kortatu baino pixka bat lehenago, 1984an, Irunen sortutako Anti-Regimen taldeak bi maketa eta *Aun recuerdo* lan luzea kaleratu zituen, 90 hamarkada atarian desagertu aurretik. Baina, omenaldiaren berri eduki bezain laster, berpiztea erabaki eta *Heroina, ¿Donde están?, Bebe* eta halako kantu ezagunak eskaintzera bueltatuko zaizkigu oinarrizko taldekide guztiak. Oreretatik, berriz, Odio talde bortitzagoa dator. 80 hamarkada hasieran sortu baziren ere, gerora beste proiektu batzuk landu dituzte, eta iaz taldea berpiztea erabaki zuten, hasierakoetatik Picotas abeslaria bakarrik gelditzen bada ere.

Bilbotarrak ere ezin falta, noski, eta hauen artean, 70 hamarkada bukaeratik inoiz itzali ez diren MCDtarrak izango dira Monterroneko taula gainean. Ia dozena bat disko eta ehunka kontzertu bizkarrean, beti bezain umoretsu eta gogor izango ditugu gure artean. Jaialdi oso berezia, beraz, zalantzarik gabe. Ez daude diren guztiak, baina daudenak badira. Monterronen 20:00etan.

IKER BARANDIARAN

Nire aukera

Bittor Gallastegi
Tabernari elgetarra

1994. urtean irakurri nuen lehen aldiz "Consummatum est", eta utzi zidan inpresio bikainarengatik oraindik ere gogoratzen dut. Bestalde, Joan Mari Irigoien da nire idazlerik gogokoena, eta bere lan guztiak gustatzen zaizkit, asko gainera.

Liburu honetan, Irigoienek bi istorio garatzen ditu, bakoitza bere protagonistarekin, ongiaren eta gaizkiaren arteko gatazka irudikatuz; bukaeran, bi istorioek bat egiten dute, gatazka horri amaiera edo irtenbidea emanez.

'CONSUMMATUM EST'
Joan Mari Irigoien

LEIRE KORTABARRIA

Kaleratu berriak

Ibon Arantzabal

LIBURUA | *Itzulpena*



KONTAKIZUNAK
Edgar Allan Poe
Itzulpena Koro Navarro
Ibaizabal
189 orrialde

Literaturaren historian puntapuntako egileetako bat dugu Edgar Allan Poe. *Kontakizunak* Poe-ren lan adierazgarrienetako bat da, ez da alferrik atzerrian izena lortu zuen Estatu Batuetako lehen idazlea. Liburu honetako kontakizunetan guztiak dira ezagunak eta bateren bat entzute handiko itzultzaileek euskaratua ere izan zen, Jon Mirandek lehenengo eta Oskillasok gero. Mitomanoen iturri agortezin zen Edgar Poe. Izumeneko kontakizunak dira gehienak eta kronologikoki ordenatuak aurkezten dira.

LIBURUA | *Umeentzako*

JONASEN IRATZARGAILUA
Juan Kruz Igerabide
Aizkorri
36 orrialde

Juan Kruz Igerabiderekin batera Mikel Valverde aipatu behar, bera da-eta Aizkorri argitaletxeak Mendi sorgindua bilduman atera duen liburuko marrazkilaria. Liburuan ilustrazioek ere pisu handia dute eta asko laguntzen dute ipuineko pertsonaia Jonasek kontatzen dituenak jarraitzeko, tik-tak hotsak esnatzen duen artean. Tartean, Jonasek zeloen inguruan dituen nahasteak dira ipuinaren oinarrian, jaiotzera doan arrebaren zeloak azken batean.

DISKOA / *Rocka eta hardcorea*

SAGARROI
Meatzaldea
Metak
14 kantu

Iñigo Muguruzaren egitasmo musikal berria, non gitarra eta ahots nagusiaz arduratuko baita eta *Sagarroi* izenpean datorkigun. Ohiko hirukote honek (bateria, gitarra apala eta gitarra) intentsitate aldaketekin jolasten du, Pixies edota Fugazi taldeek darabilten erritmo astiro sinkopatutik Hard-Ons edo Poison Idea taldeek burura dakarzkiguten enbatetara, erritmo lasterretara, gitarra zorrotza eta guzti erraztasun handiz pasatuz. Iraupena: 45'33"

Ekaina: 15-22

Edu Mendibil / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta-e: **erredakzioa@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

Antzerkia

OÑATI

> **Komediaka** egubakoitzean, hilak 15, Santa Ana antzokian, 22:30ean.

Dantza

ELGETA

> **Sutargi** Edu Muruamendiarazen dantza ikuskizuna egubakoitzean, hilak 15, Espaloia antzokian, 22:00etan.

Musika

ARRASATE

> **Porturen** omenezko kontzertua egubakoitzean, hilak 15, Monterronen, 20:00etan. Eskizofrenia rock, Puñetazo, Ume gaiztuak, Anti-regimen, Odio, MCD, Heriotza eta RIP.

> **Ikasturte bukaerako** kontzertua eguaztenean, ekainak 20, Arrasate Musikaleko aretoan, 19:00etan.

> **Biolin kontzertua** eguenean, hilak 22, Arrasate Musikaleko aretoan, 18:30ean.

> **Gaztelu Konbo** taldea ekainaren 24an Jaizale tabernan, 20:00etan.

BERGARA

> **Queens of the stone age** taldea martitzenean, hilak 19, Jam aretoan, 20:30ean.

> **Bergarako Orfeoi Gaztea** eta Arrasateko Goikobalu Txiki taldeen emanaldia zapatuan, hilak 16, Mariaren Lagundian, 12:00etan.

Erakusketak

ARRASATE

> **Jon Balentziaga**ren margo erakusketa Aita Menni ospitalean uztailaren 2a arte.

> ***Gay mugimenduaren historia Euskal Herrian. Heziketa da bidea*** izenburuko erakusketa Jai Zale tabernan, domekara arte.

> **Koldo Gojenolaren** margo erakusketa Toki-Eder kafetegian.

BERGARA

> **Nere Atorrasagastiren** margolanak oliotan Nahikari tabernan, uztailaren 1a arte.

> **Emakumeek egindako eskulanen** erakusketa Kultura Etxean, ekainaren 24ra arte. Udaleko Gizarte Zerbitzuak antolatuta.

EIBAR

> **Luis Laskurain** bergararraren margolanak Topaleku aretoan, ekainaren 22tik uztailaren 1era.

Lehiaketak

ARRASATE

> **Komiki ez sexisten IV. lehiaketa,** Arrasateko Udalak deituta. Lanak aurkezteko epea uztailaren 20an bukatuko da. Testuak euskaraz zein gazteleraz aurkez daitezke. Lehen saria 100.000 pezetakoa da. Beste hainbat sari banatuko dira. Argibide gehiago Emakume sailaren bulegoan jaso daitezke, 943 79 09 00 telefono zenbakian.

> **Argazki lehiaketa** deitu du Arrasateko Udalak. Lanak aurkezteko epea urriaren 11ra arte izango da zabalik. Zuribeltzeko zein koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira. Argibideak udaletxean, 943 79 09 00 telefono zenbakian.

> **Margo lehiaketa** zapatuan, ekainaren 16an. Izena ematea Tamayo paper dendan egubakoitzera arte zabalik.

BEASAIN

> **IV. Igartza literatur sorkuntzako beka idazle berrientzat.** Deialdi honetara, narratibazko lanak (eleberri edo ipuin-bildumak) egiteko proiektuak aurkez litezke. Bekak 1.000.000 pezetako dirulaguntza izango du. Proiektuak aurkezteko epea ekainaren 30ean bukatuko da. Argibide gehiago Beasaingo udaleko euskara zerbitzuan, 943 02 80 50 zenbakian.

GASTEIZ

> **Gazteen Bideo Amateurraren IX. Erakustaldia.** Filmak (hiru kopia VHS sisteman) aurkezteko epea uztailaren 31n bukatuko da. Lan onenentzat sariak egongo dira. Argibideak 945 28 61 42 telefono zenbakian.

ZESTOA

> **Zestoa herria ikerketa beka.** Bekaren helburua: Zestoako ahozko tradizioa eta kultura ondareari buruzko ikerlana egitea. Ikerketa lana euskaraz egin beharrekoa da eta lana egiteko epea 12 hilabetekoa izango da. Bekaren zenbateko milioi bat pezetakoa izango da. Argibideak Zestoako Udaleko Euskara Zerbitzuan jaso daitezke, 943 14 70 10 telefono zenbakian.

Ikastaroak

ARRASATE

> **Gorputz lan bioenergetiko taldea**. Eguaztenero, 18:30ean. Arrasate Yoga Elkarteak antolatuta. Argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian.

> **Udako gazte ikastaroak,** 15 urtetik gorakoei zuzenduta: argazkigintza (zapatuetan, ekainaren 30etik uztailaren 28ra), gaur egungo dantza (uztailaren 2tik 13ra, astebarruan), irrati tailerra (uztailaren 2tik 27ra, astelehen eta eguaztenetan) eta arkeologia tailerra (uztailaren 9tik 20ra, astebarruan). Izena ematea eta argibideak Gazte Bulegoan, 943 77 00 65 zenbakian.

ARETXABALETA

> **Garapen pertsonala taldea**. Hilean bi bilduko dira larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara. Informazioa eta argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian.

DEBA

> **Debako Arte Eskola.** Udako ikastaroak uztailaren 2tik aurrera: kalkografiazko grabatuaren hastapenak, zeramikaren hastapenak, brontze galdaketa artistikoa, marrazketa eta pintura tailerra, marmolezko eskultura edota egurra lantzeko tailerra. Argibideak eta izena ematea 943 19 18 04 zenbakian.

Deiak

ARRASATE

> **Manifestazioa.** Lastertasun Handiko Trenaren aurkako manifestazioa egingo da Donostian zapatuan, ekainaren 16an. Manifestazioa 18:00etan irtengo da Anoetako estadiotik. Garibaitik irtengo da autobusa 16:00etan. Izena ematea Biona, Jai Zale edo Irati tabernetan.

> **Mus txapelketa** domekan, ekainaren 17an, Hotel Mondragonen, 16:30ean. Emakumezkoek zein gizonezkoek parte hartu ahal izango dute. Izena ematea: 3.000 pezeta. Parte hartzaileen artean hainbat sari zozketatuko dituzte.

BERGARA

> **Hitzaldiak:** *Psikoterapiaren bilakaera eta yoga* astelehenean, hilak 18. Eguaztenean, hilak 20, *Ukimenaren indarra eta tantra: femeninoaren kultoa* izango dira aztergai. Arrasate Yoga Elkarteak egingo dituen bi hitzaldi horiek kultura etxean izango dira, 18:00etan.

> **Uliazpi Fundazioak** abian jarri du adimen urritasun larria edo handia duten pertsonen familiakoak udan atsedenaldia hartzeko "Respiro" izeneko programa. Zerbitzu hori abuztuan eskainiko da fundazioak Donostian duen etxean. Interesatuek udaleko Ongizate Zerbitzura deitu beharko dute (943 77 91 65) lehenbailehen.

> **Mendi irteera** ekainaren 23an eta 24an Billaresera. Gorla Alpinok eta Pol-Pol Mendizale Taldeak antolatuta. Txartelak Pol-Poleko bulegoan, 19:00etatik 20:30era.

> **Astronomiako taldea** datorren eguenean, hilak 21, Kultura Etxean bilduko da, 19:30ean, planetei eta konstelazioei buruz hitz egiteko.

> **Jardun elkarteak** irailetik aurrera Bergaran abian jarriko duen "Kuadrillategi" izeneko egitasmoarako dinamizatzaileak behar dira. Bete beharreko baldintzak: 20 urtetik gorakoa izatea, euskara menperatzea eta irakasle ikasketak, pedagogia, psikologia, soziologia nahiz gizarte hezkuntza ikasten egon edo ikasketak bukatuak izatea. Interesatuok ekainaren 30a baino lehen bidali behar dute curriculuma helbide honetara: Jardun elkartea. Juan Irazabal z/g (Kartzela). 20570 Bergara.

> **EHEk** deituta ekainaren 23an Gasteizen egingo den ofizialtasunaren aldeko manifestaziora joateko kotxe karabana aterako da frontoitik, 15:30ean.

> **San Joxepe** jubilatuen elkartearen irteera Gernikako feriara ekainaren 25ean. Irteera 9etan egingo da autobus geltokitik eta azoka eta Loiuko aireportua bisitatu ondoren, Montenegro jatetxean egingo dute bazkaria. Izena ematea (3.400 pezeta) Euskadiko Kutxan ekainaren 19ra arte.

ESKORIATZA

> **Dance karpa** egubakoitzean eta zapatuan, goizeko 4etatik aurrera. San Pedro Txiki ospakizunen barruan.

MUSIKA

QUEENS OF THE STONE AGE BERGARAN

Dagoeneko sei urte igaro dira Kyuss taldea desegin zenetik. Josh Homme Kyusseko kidea izan zen, baina hiruzpalau urtetik hona Queens Of The Stone Age taldearen gidari nagusia da. Aurretik Screeming Trees taldeko gitarra jolea izan zen. Nick Oliveri baxu jolearekin elkartu zenean, Queens Of The Stone Age taldea sortu zuten. *Rated R* beraien bigarren diskoarekin entzulego handia lortu dute. Besteak beste, Black Sabbath, MC5, Blue Cheer edo The Stooges taldeen eragina aitortu dute.

Noiz: Martitzenean, hilak 19, Jam aretoan. **Ordua:** 20:30. **Sarrera:** 2.800 pezeta.



Sutargi

Edu Muruamendiarazen Sutargi dantza ikuskizuna
Elgetako Espaloia antzokian

Ekainaren 15ean,22:30etan

Zinema

ARRASATE / ALAI ZINEMA

Premonición
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.

Noviembre dulce
Domeka: 17:00,19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

BERGARA / NOVEDADES

Los ríos de color púrpura
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Manuelita
Zapatua eta domeka: 17:00.

OÑATI / SANTA ANA

El espinazo del diablo
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

EIBAR

UNZAGA

Brother
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

RIALTO

Juerga de solteros
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00,19:30, 22:15.
Domeka: 17:00,19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELGOIBAR / HERRIKO ANTZOKIA

Las flores de Harrison
Egubakoitza, zine-kluba: 22:15.

El regreso de la momia
Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 22:15.

Las huellas borradas
Eguena, zine-kluba: 21:30.

ELORRIO / ARRIOLA

El espinazo del diablo
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

AZKOITIA / BAZTARTXO

El espinazo del diablo
Egubakoitza: 22:00
Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

GASTEIZ

GURIDI

El regreso de la momia
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik eguaztenera: 17:00, 19:45, 22:30.
Eguena: 17:00, 19:45.

El diario de Bridget Jones
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Tiempos de azúcar
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik eguaztenera: 17:00, 19:45, 22:30.
Eguena: 17:00, 19:45.

Los ríos de color púrpura
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1.00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

La hora de la araña
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:15, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:15, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

El diario de Bridget Jones
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:15, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:15, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Pata negra
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:15, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:15, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Amor, curiosidad, prozac y dudas
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:15, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:15, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

Son de mar
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:15, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:15, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

La luna en directo (The dish)
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

Chocolat
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

MIKELDI ZINEMAK

El regreso de la momia
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 17:15 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Hombres felices
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:15, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:15, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

MIKELDI ZINEMA

Amores perros
Zapatua eta domeka: 16:45, 19:45, 22:45.
Astebarruan: 19:30, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

Blow
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Doraemon y las mil y una aventuras
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Silencio roto
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

No quiero morir un domingo
Egubakoitza: 20:00, 22:30, 1:00.
Zapatua: 20:30, 22:30, 1:00.
Domeka: 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00, 22:30.

Time´s up
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 1:00.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Son de mar
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

Asesinato en febrero
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

Hombres felices
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 1:00.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

Megasonikoak
Egubakoitzetik eguenera: 12:30.

LOS RIOS DE COLOR PURPURA
ZUZENDARIA: MATHIEU KASSOVITZ. AKTOREAK: JEAN RENO, VINCENT CASSEL, NADIA FARES.
Garai batean kotxeak lapurtzen zituen *Max* gaztea polizia da orain, batez ere arriskua gogoko duelako. Sarzak hirian profanatutako kanposantua ikertzen ari da eta bereziki duela 20 urte desagertutako ume baten hilobia. Handik 300 kilometrora, krimen alorrean esperientzia handia duen *Niemens* ikertzailea Guernonera, Alpeetako hiri unibertsitario batera joango da erailketa bat ikertzera. Bi poliziek euren bizia arriskuan jarriko dute, indar misteriotsuei aurre egin beharko dietelarik...

PREMONICION
ZUZENDARIA: SAM RAIMI. AKTOREAK: CATE BLANCHET, KEANU REEVES.
Anniek etorkizuna iragartzeko ahalmena dauka eta, alarguna izanik, familia aurrera ateratzeko bizilagunei etorkizuna iragartzen die. Egun batean neska gazte bat desagertu egingo da eta orduan Annieri neska topatzeko laguntza eskatuko diote. Sam Reimi zuzendariaren film honetan tentsioa da nagusi.

OÑATI

> **Ibilbide historiko eta artistikoa** zapatuan, hilak 16, Foru Enparantzan, 12:30ean.

> **Odol ateraldia** egubakoitzean, hilak 15, Txantxiku ikastolan, 18:00etatik 20:00etara.

DEBAGOIENA

> **Udako Euskal Unibertsitateak** antolatzen dituen udako ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago. Miarritzeko ikastaroak uztailaren 2tik 6ra bitartean egingo dituzte, eta Iruñekoak 16tik 27ra. Izena ematea eta argibideak 943 82 14 26 telefonoan.

Jaiak

ARETXABALETA

> **Kurtzebarri eskolako eguna** zapatuan, ekainaren 16an. Goizeko 10:00etan suziri jaurtiketa eta jarraian Otala zelaira irteera. Ondoren, eskolako trikitilariekin hamarretakoa egingo da. Bolo txapelketa 11:30ean izango da eta ordu berean street basketeko lehiaketak. Eguerdian, 12:30ean, aperitiboa eta 13:00etan Arrasateko Aikido taldearen erakustaldia. Bazkaria 14:15ean egingo da, eta bazkalostean Auskalo taldearen saioa, sari banaketa, zozketa eta Iñigo soinu jotzailearekin dantzaldia izango dira.

ARRASATE

> **Haur Dantzarien Eguna** domekan, ekainak 17. Taldeak 10:30ean bilduko dira Nafarroa etorbidean, kalejirak eta dantzak 11:45ean eta 17:00etan plazan talde guztien jarduna eta agurra. Partaideak: Arrasate, Bergara, Soraluze, Aretxabaleta, Antzuola, Durango eta Falceseko taldeek hartuko dute parte.

Museoak

ESKORIATZA

> **Eskoriatzako museo eskola.** Hidalga, 5. Euskal Herriko historia, historiaurrea eta etnografia. Martitzenetik domekara, 17:00etatik 20:00etara. 943 71 54 53.

LEINTZ GATZAGA

> **Gatz museoa.** Asteburuetan eta jaiegunetan lau bisitaldi: 11:30 / 12:30 / 16:00 / 17:00. Astegunetan: taldeak. 943 71 47 46.

DONOSTIA

> **Zientziaren Kutxaespazioa.** Miramongo parkea. Martitzenetik zapatura, 10:00etatik 18:00etara. Domeka eta jaiegunetan, 11:00etatik 18:00etara. Zientzia eta teknikaren erakusketa interaktiboa.

> **San Telmo museoa.** Zuloaga plaza, 1. Martitzenetik zapatura, 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara. Domeka eta jaiegunetan, 10:30etik 14:00etara. Taldeentzako bisitaldi gidatuak izaten dira aurretik txanda eskatuz gero. Sarrera, doan.

ZARAUTZ

> **Photomuseum. Argazki euskal museoa.** San Ignacio, 11. Martitzenetik domekara, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

AZPEITIA

> **Trenbidearen euskal museoa.** Julian Elorza, 8. Astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:30era. Zapatuetan, 10:00etatik 13:30era eta 15:30etik 17:30era. Domeka eta jaiegunetan, 10:00etatik 13:30era.

ELGOIBAR

> **Makina-erremintaren museoa.** San Roke auzoa, 1. Astelehenetik egubakoitzera, 08:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 17:30era.

ORMAIZTEGI

> **Zumalakarregi museoa.** Iriarte Erdiko Etxea. Martitzenetik egubakoitzera, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara. Zapatuetan 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 18:30era.

Jaiak han eta hemen

OÑATI
Korpusti jaiak

Egubakoitza 15

- **Goizean** Oñatz dantza taldea herriko auzoetan barrena arituko da aspaldiko ohiturari jarraituz.
- **14:00-17:00** Oñatz dantza taldearen ekitaldia herriko ikastetxeetan.
- **17:30** Udaletxeko areto nagusian Andres Arlazonen argazki erakusketaren inaugurazioa. Ganbara abesbatzaren saioa. Erakusketa zabalik izango da ekainaren 23a bitartean. Ordutegia: astegunetan 19:00-21:00 eta larunbatetan 12:00-14:00.
- **19:15** Txorimaloak eta erraldoiak Txistulari Bandak lagunduta.
- **22:30** Santa Ana antzokian: "Komeriaka". Partaideak: Jose Ramon Soroiz, Ane Gabarain, Pantzo Irigaray, Loli Astoreka, Aitzpea Goenaga. Aurkezleak: Mikel Martinez, Patxo Telleria. Musika zuzenean: Juantxo Zeberio, Xabier Zeberio, Iñigo Egia. Sarrera: 1.200 pezeta aldez aurretik. Txarteldegian: 1.500 pezeta.

Zapatua 16

- **09:00** Foruen plazan Oñatz dantza taldearen emanaldia. Gero, herriko kaleetan barrena ekitaldia Txistulari Bandak lagunduta.
- **17:30** Foruen plazan umeendako ikuskizuna: PANTA RHEI taldeak Saraba lana eskainiko du.
- **18:00** Arku tiroketa erakustaldia frontoi zaharrean. Euria eginez gero, Zubikoa pilotalekuan.
- **19:00** Txistulari Bandak herriko kaleetan barrena kalejira egingo du.
- **19:30** Musika bandaren kalejira.
- **18:00-21:00** SAKATRIK taldearekin dantzaldia.
- **22:30** SAKATRIK taldearekin dantzaldia.

Domeka 17

- **09:00** Txistulari Bandaren goiz-eresia.
- **10:00** Musika bandaren goiz-eresia.
- **10:00** Plater tiroketa txapelketa tiro zelaian. Modalitatea: "Foso Olinpiarra". Hiru kategoria. 180.000 pezetako dirusariak eta garaikurrak. Euskadiko txapelketarako puntuagarria.
- **10:00** Prozesioko irudiak San Migel Parrokiara ekartzea.
- **10:45** San Migelen irudia eta korporazioa San Migel Parrokiara iritsiko dira.
- **11:00** Parrokian meza nagusia. Mezaren ondoren, Korpuseko prozesioa herriko kale nagusietan.
- **13:00** Belar inguruan, Euskadiko parapente txapelketa.
- **13:30** Musika bandaren kontzertua. Egitaraua: Korpus eguneko zortzikoa. "Instrumentación" F de Beobiderena, "La Cénérentola" Obertura, G. Rossinirena. "Revival rag 1920" fanfarea, Jan Stoeckartena.
- **17:00** Profesional mailako pilota partiduak. Partidu nagusia: Goñi II.a - Goñi III.a // Titin III.a – Zezeaga. Sarrera bakarra: 3.000 pezeta. Sarrera txarteldegian salgai.
- **18:15** Foruen plazan Oñatz dantza taldearen emanaldia Korpus eguneko dantza egitarau osoa eskainiz. (Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian)
- **19:00** Musika bandaren eskutik, dantzaldia Foruen plazan.

Gaurtik, egubakoitza, domekara bitartean, Korpus jaiak ospatuko dira Oñatin. San Migelen irudia eta Oñatz dantza taldearen emanaldiak izango dira protagonistak, baina beste hainbat ekitaldi izango dira: pilota partiduak, dantzaldia, antzerki emanaldia, parapente txapelketa... Egun garrantzitsuena domeka, Korpusti eguna, izango da.

ESKORIATZA
Intxaurtxueta auzoko jaiak

Egubakoitza 15

- **18:00** Txupinazoa eta jaien hasiera.
- **18:30** Buruhandiak.
- **19:00** Briska lehiaketa Lagunak kafetegian.
- **22:00** Saiheski jana. San Pedro eta Intxaurtxuetako edozein tabernatan bonoak salgai 1.500 pezetan.
- **23:30** Berbena handia Maitana taldearekin.
- **04:00** Dj-en emanaldia Kiroldegi aurreko plazan (aurten ere karpa jarriko da).

Zapatua 16

- **10:00** Diana zuziri eta guzti.
- **10:15** Haurrentzako jolasak eta giza partxisa.
- **12:30** Herri txikiteoa.
- **16:00** Tute lehiaketa Compostela tabernan.
- **17:00** Txiki IV. areto futbol eta saskibaloi txapelketa kiroldegian.
- **23:00** Berbena handia Maitana taldearekin.
- **04:00** Dj-en bigarren emanaldia kiroldegi aurreko plazan.

Domeka 17

- **10:30** Diana zuziri eta guzti.
- **11:30** Arratsaldeko ordu biak bitartean haurren parkea (gaztelu puzgarriak, karrak, txu-txu trena...).
- **12:30** Tortilla lehiaketa handia.
- **13:00** Herri txikiteoa.
- **15:00** Arratsaldeko lau eta erdiak bitartean parkearen jarraipena.
- **16:00** Mus txapelketa Ilargi tabernan.
- **18:30** Bi auzoetako 65 urtetik gorako jubilatuentzat luntxa Compostela tabernan.
- **21:00** Jai bukaerako traka.

BERGARA
San Antonio auzoko jaiak

Astelehena 16

- **11:00** Txorizoa eta salda.
- **12:00** Herri txikiteoa.
- **16:00** XVI. mus txapelketa.
- **16:30** Txirrindulari lasterketa. Bigarren urteko kadeteak. LXV. San Antonioko saria.
- **17:30** Kukañak, buruhandiak eta txokolate jana.
- **23:30** Dantzaldia, Aitana orkestrarekin.

Domeka 17

- **09:00** Diana. Txokolate beroa gaupaseroa eta goiztiar guztientzat.

ELOSU
Auzoko otabak

Astelehena 16

- **17:30** Etxafleroak eta kanpai hotsak.
- **18:00** Txokolate beroa.
- **19:00** Pilota partiduak: gaztetxoak eta gazteak binaka.
- **20:30** Bertso afaria Joxe Agirre eta Irazu bertsolariekin eta Lutxurdio eta Aitziber soinu jotzaileekin Elurmendi elkartean.

Domeka 17

- **11:30** Lutxurdio eta Aitziber soinujoleak.
- **11:45** Meza Nagusia.
- **12:30** Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak.
- **14:00** Lutxurdio eta Aitziber soinu jotzaileak.
- **17:00** Herri kirol jaialdia aizkolari eta harrijasotzaileekin.
  Mugerza eta Flores.
  Ostolaza eta Elosu-Korta.
  Esnaola hailtzurrarekin enborra mozten.

Astelehena 16

- **13:00** Hildakoen aldeko meza.
- **13:30** Laja eta Lutxurdio.
- **14:30** Auzo bazkaria Elurmendi elkartean.
- **21:00** Auzo afaria Elurmendi elkartean Laja eta Landakandarekin.
- **24:00** Errifaren zozketa.

JAIOTAKOAK

Hodei Peciña Eraña
Aramaion, maiatzaren 30ean.
Amaiur Egurrola Roldan
Arrasaten, maiatzaren 31n.
Ander Perez Jurado
Arrasaten, ekainaren 5ean.
Ioane Iribecampos Domenech
Bergaran, ekainaren 6an.
Egoitz Mañarikua Egiguren
Elgetan, ekainaren 9an.

HILDAKOAK

Bonifacio Ibabe Orueta
Arrasaten, ekainaren 7an,
77 urte zituela.
Juan Mari Kortabarria Arkauz
Aretxabaletan, ekainaren 7an,
43 urte zituela.
Jose Ramon Mendikute Agirre
Bergaran, ekainaren 8an,
66 urte zituela.
Maria Pilar Marin Roma
Oñatin, ekainaren 9an,
30 urte zituela.
Victorina Zulaika Txintxurreta
Bergaran, ekainaren 11n,
80 urte zituela.
Jose Olabide Mujika
Bergaran, ekainaren 11n,
79 urte zituela.
Ricardo Guridi Idigoras
Arrasaten, ekainaren 11n,
75 urte zituela.
Juliana Saizar Alberdi
Bergaran, ekainaren 12an,
79 urte zituela.
Maria Teresa Urmeneta Castellano
Oñatin, ekainaren 12an,
58 urte zituela.



Leire Agirre Leibar, Itxaro ama eta **Maddalen** ahizparekin, mondragoetarrak hirurak. Leire ekainaren 2an jaio zen, eta 3,260 kilo pisatu zuen. **Gotzon** da aita, mondragoetarra.

Ander Perez Jurado mondragoetarra eta **Mari** ama, eibartarra. Ander ekainaren 5ean jaio zen, eta 3,350 kilo pisatu zuen. **Angel** da aita, mondragoetarra.

Eider Etxaniz Lasa eta **Martin** aita, bergararrak biak. Eider ekainaren 8an jaio zen, eta 3,280 kilo pisatu zuen. **Olatz** da ama, bergararra bera ere.

Naia Figueroa Garcia, Los Arcosekoa, gurasoekin. Ekainaren 10ean jaio zen, eta 3,170 kilo pisatu zuen. **Cruz** eta **Benita** dira gurasoak; Los Arcosekoa aita, eta ama, mondragoetarra.

Eneko Guirado eta **Ana Rodriguez** mondragoetarrak datorren zapatuan, ekainak 16, ezkonduko dira Arrasateko parrokian. Horregatik, frigorifikoetako lagunek, honela zoriondu nahi izan dituzte. Zorionak, bada, bikote!

ESKELA

Juan Mari Kortabarria Arkauz

Aretxabaletan hil zen 2001eko ekainaren 8an.

Erreza izan zen zu maitatzea.
Ezinezkoa ordea, zu ahaztea.
Beti gurekin izango zara.

Guraso koadrila

ESKER ONA

Jose Olabide Mugica

Bergaran hil zan
2001ko ekainaren 11an
79 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Klara Telleria Oruna

Lehen urteurreneko meza
domekan, ekainak 17,
12:30ean,
Bergarako San Pedron.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko Santana Boluko
sendikoen izenean.

URTEURRENA

Tomas Letona Alejolaleiba

Lehen urteurreneko meza
domekan, ekainak 17,
11:30ean,
Arrasaten Uribarriko Andramarin.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Fernando Santamaria Franco

Ze ederra izan zen zurekin bizitzea,
ze tristea den zurekin ez egotea".

Lehen urteurreneko meza
domekan, ekainak 17,
12:30ean, **Bergara**ko San Pedron.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Benita Zenitagoia Belar

Lehen urteurreneko meza
domekan, ekainak 17,
12:30ean,
Bergarako San Pedron.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Basilisa Candamio Fernandez

Lehen urteurreneko meza
domekan, ekainak 17,
12:30ean,
Bergarako San Pedron.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Asuntxi Arostegi Navas

Lehen urteurreneko meza
domekan, ekainak 17,
12:30ean,
Bergarako San Pedron.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Martin Lete Urdangarin

Lehen urteurreneko meza
domekan, ekainak 17,
12:30ean,
Bergarako San Pedron.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Eguraldia

Oskarbi · Ostarteak · Estalia · Euria · Zaparradak · Ekaitza · Txingorra · Elurra · Behelainoa

ZAPATUA, 16

Lainoak eta ostarteak tartekatuko dira. Euri txikia ere egin dezake. Tenperaturak behera egingo du. Haizea mendebaldetik ibiliko da.

Nafarroako Erribera:
Egun euritsua.
Errioxa: Euria nagusi.
Pirinioak: Euria nagusi.

DOMEKA, 17

Lainotsua izango dugu domeka, eta euri txikia ere egingo du. Tenperatura ez da aldatuko. Haizea iparmendebaldetik ibiliko da.

Nafarroako Erribera:
Zaparradak.
Errioxa: Zaparradak.
Pirinioak: Egun euritsua.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TENPERATURA

17,3º C

ILARGIAREN ALDIAK: EKAINA

ilbetea	ilbehera	ilberri	ilberri
6	14	21	28

EGUZKIA: EKAINAREN 17a

Sortu 06:46 · Gorde 21:49

Urkuluko urtegia

Joan zen asteburuan zaparradak bota zituen arren, behera egin du berriro Urkuluko ur mailak. Joan zen astean %94,1; oraingo astean, ostera, %92,96.

%92,9

Mezak

ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

Astegunetan
08:30, 12:00.
Zapatuetan
08:30, 12:00, 19:30.
Domeka eta jaiegunetan
09:00, 10:00, 12:00 (nagusia), 13:15 (gaztelaniaz, Kriptan), 18:30.

Telefonoak

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 76 53 40
Oñati	943 78 23 12
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospitalea	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 79 74 58
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 79 10 52
Bergara	943 77 91 06
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Abere hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elkartea	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Kapirixo	943 71 63 23
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
Arrasate / AED	943 77 12 28
Aretxabal. / Loramendi	943 77 09 70
Bergara / Jardun	943 76 08 19
Eskoriatza / Axtroki	943 71 54 34
Oñati / Laixan	943 71 63 11
Hondakindegi Alternatiboak	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	945 76 44 42
Oñati	943 78 36 67
Kiroldegiak	
Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola	943 76 64 80
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 79 10 00
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

Zozketak

BONOLOTOA

EGUAZTENA 13	MARTITZENA 12	ASTELEHENA 11	EGUBAKOITZA 8
09 • 19 • 26	03 • 10 • 18	06 • 13 • 18	07 • 13 • 17
43 • 46 • 47	24 • 40 • 43	33 • 37 • 45	24 • 28 • 40
OSAGARRIA: 47	OSAGARRIA: 17	OSAGARRIA: 20	OSAGARRIA: 34
ITZULKETA: 7	ITZULKETA: 2	ITZULKETA: 5	ITZULKETA: 7

LOTERIA PRIMITIBOA

DOMEKA 10	ZAPATUA 9	Saritzarra EGUENA 7
03 • 06 • 09	06 • 21 • 24	07 • 13 • 23
18 • 19 • 27	29 • 31 • 39	29 • 30 • 33
OSAGARRIA: 5	OSAGARRIA: 47	OSAGARRIA: 11
ITZULKETA: 3	ITZULKETA: 7	ITZULKETA: 1

ONCE

EGUAZTENA 13	MARTITZENA 12	ASTELEHENA 11	DOMEKA 10	Kupoitzarra EGUBAKOITZA 8
47.788	**23.747**	**83.869**	**39.996** (048 seriea)	**95.798** (163 seriea)

Erakunde hauen laguntzaz
Gipuzkoako Foru Aldundia
Europar Batasuna
Arrasateko Udala · Aramaioko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Leintz Gatzagako Udala · Antzuolako Udala

Autobusak

PESA 902 10 12 10

A: Astegunak / Z: Larunbatak / J: Jaegunak eta Igandeak

DONOSTIA-GASTEIZ

BERGARA			ARRASATE			ESKOLA P.			ARETXABALETA			ESKORIATZA		
A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J
06:45	07:15	09:15	07:00	07:30	09:30	07:45	—	—	07:05	07:35	09:35	07:10	07:40	09:40
07:15	08:15	11:15	07:30	08:30	11:30	13:20			07:35	08:35	11:35	08:40	08:40	11:40
08:15	09:15	14:15	08:30	09:30	15:30				08:35	09:35	15:35	09:40	09:40	14:40
09:15	11:15	15:15	09:30	10:30*	14:30				09:35	10:35	14:35	10:40	10:40	15:40
11:15	13:00	17:15	10:30	11:30	16:30				10:35	11:35	16:35	11:40	11:40	16:40
13:00	14:15	18:30	11:30	12:30*	17:30				11:35	12:35	17:35	12:40	12:40	17:40
14:15	15:15	19:15	12:30*	13:15	18:30				12:35*	13:35	18:35	13:40	13:40	18:40
14:25	18:30	21:15	13:15	13:30*	18:45				13:20	14:35	18:50	14:50	14:40	18:55
15:15	19:15	21:45	13:30*	15:30	19:30				13:35*	15:35	19:35	15:40	15:40	19:40
16:00	20:30		14:30	14:30	21:30				14:45	16:35	21:35	16:40	16:40	21:40
18:30	21.15*		14:40	16:30	22:00				15:35	17:30		17:40	17:40	
19:15	21:45		15:30	17:30*					16:35	18:35		18:40	18:40	
20:30			16:15	18:30					17:35*	19:35		18:55	18:55	
21.15*			16:30	18:45					18:35	21:35		19:40	19:40	
21.45			17:30*	19:30					18:50	22:05*		21:40	21:40	
			18:30	20:45					19:35			22:10*		
			18:45	21:30					21:35					
			19:30	22:00					22:05*					
			20:45											
			21:30											
			22:00											

(*) Landatik.

GASTEIZ-ARRASATE-BERGARA-EIBAR-DONOSTIA

GASTEIZ			ESKORIATZA			ARETXABALETA			ARRASATE			BERGARA		
A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J
06:30**	06:30**	08:30**	06:20	07:05**	09:05**	06:25	07:10**	09:10**	06:30	07:20*	09:20**	06:45	07:35*	09:35*
07:30	07:30	09:00	07:05**	08:05	09:35	07:10**	08:10	09:40	07:20**	07:20*	09:50	07:35**	07:35*	10:05
08:30**	08:30**	10:30**	08:05	09:05**	11:05**	08:10	09:10**	11:10**	08:20	08:20	11:20**	08:35	08:35	11:35*
09:30**	09:30**	12:30**	09:05**	10:05**	13:05**	09:10**	10:10**	13:10**	09:20**	09:20**	13:20**	09:35**	09:35**	13:05*
10:30**	10:30**	15:30**	10:05**	11:05**	16:05**	10:10**	11:10**	16:10**	10:20*	10:20**	16:20**	10:35	13:35	17:35*
11:30*	11:30*	16:30*	11:05**	12:05*	17:05*	11:10**	12:10*	17:10*	10:20*	11:20**	17:20*	13:35*	13:35**	18:05*
12:30*	12:30	17:30**	12:05*	13:05*	18:05**	12:10*	13:10*	18:10**	11:20**	12:20*	18:20**	13:35*	14:35	20:05*
12:30*	12:30*	18:30*	13:05**	13:05*	19:05*	13:10**	13:10*	19:10*	12:20*	13:20*	19:20*	14:35*	17:35*	21:35**
13:30*	13:30*	19:30*	14:05*	14:05*	20:05*	14:10*	14:10*	20:10*	13:20*	13:20*	20:20*	15:35	19:35	
15:30**	14:30*	20:30**	15:05	15:05*	21:05**	15:10	15:10*	21:10**	13:20*	14:20*	21:20**	17:35*	20:35*	
14:30	15:30**		16:05**	16:05**		16:10**	16:10**		14:20*	15:20*		18:45	21:35**	
16:30*	16:30*		17:05*	17:05*		17:10*	17:10*		15:20	16:20**		19:35		
17:30**	17:30**		18:05**	18:05**		18:10**	18:10**		16:20*	17:20*		20:35*		
18:30	19:30**		19:05	19:05		19:10	19:10		17:20*	18:20**		21:35**		
19:30*	20:30**		20:05*	20:05*		20:10*	20:10*		18:20**	19:20				
20:30**			21:05**	21:05**		21:10**	21:10**		18:30	20:20*				
									19:20	21:20**				
									20:20*					
									21:20*					

(*) Landatik.
(*) Eibarreraino
(*) Bergararaino

DONOSTIA-BILBO

DONOSTIA			ANTZUOLA			BERGARA			ELGETA			BERGARA	OÑATI
A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	A
07:00	07:00	08:30	08:30	09:18	10:00	06:35*	09:10	10:10	08:50	09:20	10:20	07:20	07:40
16:30	16:30	19.00	09:40	12:05	17:55	08:40	12:15	18:10	14:00	18:20	18:20	09:35	09:55
			12:05	19:35	18:35	09:50	18:10	18:45	18:20		20:50	13:35	13:55
			16:40		20:30	12:15	19:45	20:40				16:35	16:55
			17:15		22:05	13:45	20:50	22:15				18:35	18:55
			18:00			16:50						19:35	19:55
			19:35			17:25						20:45	21:05
			20:40			18.10						Z	Z
						19:45						20:45	21:05
						20:50							

(*) Astelehenetan bakarrik. Bergara-Eibar-Bilbo autopistatik

BILBO-DONOSTIA

BILBO			ELGETA			BERGARA			ANTZUOLA			OÑATI	BERGARA
A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	A
08:00	08:00	09:00	08:50	08:50	09:50	08:00*	08:00*	09:30*	08:10*	08:10*	09:40*	07:00	07:20
17:00	17:00	17:00	14:05*	17:50	17:50	09:00	09:00	10:00	09:10	09:10	10:10	08:00	08:20
			17:50			11:00*	14:00*	18:00*	11:10*	14:10*	18:10	13:10	13:30
						14:00*	18:00	18:30	14:10*	18:10	18:40*	13:55	14:15
						15:00*	20:30•		15:10*			16:05	16:25
						17:00*			17.10			16.15	16.35
						20:30*			18:10			17.10	17.30
						18:00						19:10	19:30
			(*) Elgeta-Bergara.			(*) Bergara-Zumarraga. (*) Bergara-Antzuola.			(*) Bergara-Zumarraga.				

OÑATI-ARRASATE-BILBO

OÑATI			ARRASATE		
A	Z	J	A	Z	J
09:15	09:15	19:15	09:30	09:30	19:30
18:15	18:15		18:30	18:30	

BILBO-ARRASATE-OÑATI

BILBO			ARRASATE			OÑATI		
A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J
14:30	14:30	12:00	15:30	15:30	22:00	15:45	15:45	22:15
20:00	20:00		21:00	21:00		21:15	21:15	

BERGARA-ARRASATE-BILBO

BERGARA			ARRASATE		
A	Z	J	A	Z	J
06:30	07:15	14:30	06:45	07:30	14:45
14:30	14:30	19:15	14:45	14:45	19:30

BILBO-ARRASATE-BERGARA

BILBO			ARRASATE			BERGARA		
A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J
12:30	12:30	12:30	13:30	13:30	13:30	13:45	13:45	13:45
20:00	20:00	19:30	21:00	21:00	20:30	21:15	21:15	20:45
		21:00			22:00			22:15

BERGARA-OÑATI-ARRASATE-ARETXABALETA-ESKORIATZA

BERGARA			OÑATI			ARRASATE			ARETXABALETA			ESKORIATZA	
A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z
07:25	09:35*	14:35*	07:00	07:00*	09:00	07:20	06:20	09:20	07:30	06:30	15:00	07:40	06:40
08:35*	11:35*	16:35*	07:45*	09:00*	11:00	07:40	07:20*	11:20	07:50	07:30	15:30	08:00	07:40*
09:35	13:35	18:35*	09:00	11:00*	13:00	08:05*	09:20*	13:20	08:15*	09:30	17:00	08:25*	09:40*
10:35*	15:35*	21:05*	11:00	13:00*	15:00	08:50*	09:50*	14:50*	09:00*	10:00	17.30	09:10*	10:10*
11:35*	16:35	21:35*	13:00*	15:00	17:00	09:20	11:20*	15:20	09:30	11:30	19:00	09:40	11:40*
12:35	17:35		14:00	17:00	19:00	09:50	11:50*	16:50*	10:00	12:00	19:30	10:10	12:10*
13:35	18:35*		15:00	19:00	21:00	10:50*	13:20*	17:20	11:00*	13:30		11:10*	13:40*
14:35*	19:35		17:00	21:00	22:00	11:20	13:50	18:50*	11:30	14:00		11:40	14:10
15:35*	21:05		19:00			11:50*	15:20	19:20	12:00*	15:30		12:10*	15:40
16:35	21:35*		20:00*			12:50	15:50*	21:20*	13:00	16:00		13:10	16:10*
17:35*			21:00			13:20*	16:50	21:50*	13:30*	17.00		13:40*	17:10
18:35*						13:50	17:20	22:20	14:00	17.30		14:00	17:40
19:35						14:20	17:50		14:30	18:00		14:40	18:10
21:05*						14:50*	18:50*		15:00*	19:00		15:10	19:10*
21:35						15:20	19:20		15:30	19:30		15:40	19:40
						15:50*	19:50		16:00*	20:00		16:10	20:10
						16:50	21:20		17:00	20.30*		17:10	
						17:20	21:50*		17.30			17:40	
						17:50*			18:00*			18:10	
						18:50*			19:00*			19:10	
						19:20			19:30			19:40	
						19:50			20:00			20:10	
						20.20*			20.30*			20:40	
						21:20*							
						21:50							

(*) Gutxitu fisikoendako prestatuta.

ESKORIATZA-ARETXABALETA-ARRASATE-OÑATI-BERGARA-EIBAR

ESKORIATZA			ARETXABALETA			ARRASATE			OÑATI			BERGARA		
A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J
06:45*	07:45*	14:45*	06:55*	07:55*	14:55*	05:55	08:05*	08:35	07:40*	08:55*	08:55	06:10	08:20*	15:20
07:00*	09:45*	16:15	07:10*	09:55*	16:25	07:05*	08.35*	09:35	08:55	10:55*	09:55-	07:20*	10:20*	15:20
07:45	10:15*	16:45*	07:55	10:25*	16:55*	07:20*	10:05*	11:35	10:55	12:55*	11:55	08:20	12:20*	17:20
08:15	11:45*	18:15	08:25	11:55*	18:25	08:05	10:35*	13:05	12:55*	14:55	14:55	09:20*	14:20*	19:20
08:45*	12:15*	18:45*	08:55*	12:25*	18:55*	08:35	12:05*	14:35	13:55	16:55	16:55	10:20*	15:20	20:20*
09:45*	13:45*	19:45*	09:55*	13:55*	19:55*	09:05*	12:35*	15:05*	14:55	18:55	18:55	11:20	16:20	
10:15	14:15	20:15	10:25	14:25	20:25	10:05*	14:05*	15:30	16:55	21:05	20:55	12:20	17:20*	
10:45	14:45		10:55	14:55		10:35	14:35	17:05*	18:55			13:20*	18:20	
11:45	15:45		11:55	15:55		11:05	15:05	18:35	19:55*			14:20*	19:20	
12:15*	16:15		12:25*	16:25		12:05	16:05	19:05*	21:05			15:20	20:20*	
12:45*	16:45*		12:55*	16:55*		12:35*	16:35	20:05*				16:20*		
13:15	17:45		13:25	17:55		13:05*	17:05*	20:35				17:20*		
13:45*	18:15		13:55*	18:25		13:35	18:05					18:20		
14:15	18:45		14:25	18:55		14:05*	18:35					19:20*		
14:45	19:45*		14:44	19:55*		14:35	19:05					20:20		
15:45*	20:15		15:55*	20:25		15:05	20:05*							
16:15			16:25			16:05*	20:35							
16:45*			16.55*			16:35								
17:45			17:55			17:05*								
18:15			18:25			18:05								
18:45*			18.55*			18:35								
19:15*			19:25*			19:05*								
19:45			19:55			19:35*								
20:15			20:25			20:05								
20:45			20:55			20:35								
						21.05								

(*) Gutxitu fisikoendako prestatuta.

BERGARA-ANTZUOLA-IRUÑEA

BERGARA			ANTZUOLA			IRUÑEA			ANTZUOLA			BERGARA		
A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J	A	Z	J
08:00	08:00	09:30	08:10	08:10	09:40	10:30	10:30	17:00	12:05	12:05	18:35	12:15	12:15	18:05
14:00	14:00	18:30	14:10	14:10	18:40	18:00	18:00	20:30	19:35	19:35	22:05	19:45	19:45	22:15

IRUÑEA-ANTZUOLA-BERGARA-EIBAR

Hitz gezidunak

Luma



		VI. hilabete / Hegazti mota		Deitura / Iskanbila, gatazka		Airera egin
		Nahikoa! / Bokala				
Eraikina / Modua	Izena / Alda daitekeena					
		Ene / Trebe				
Izen arrabiarra / Bideratu			Infin., lortu / Har ezak!			
					Bokala / Danbor mota	
Hegazti mota / Galtziako hiria				Kanpo / Eguneroko janari		
			Bururatu / Bokala			
Sodioa / Intsektu mota		Nafarroako ibaia / Bihi				Bilo
			Igarobide / Ukatzeko			
Zaletasuna duena / Baketi				Aluminioa / Bokala		

Bila-bila 7





Umore giroan

Jon Irizar

LAU GIZON

Juan da emakumia ginekologuangana lehenengo aldiz, eta medikuak esan dotsa azterketia egin ostian:

- Eta bizitza, zelan?

- Ba, lau bider ezkonduta egon naiz...

- Eta zelan leike, ba, lau aldiz ezkonduta eta ondio birjiña izatia?

- Bai, lehenengo gizona funtzionarixua zan eta harek esaten zostan: "bixar, bixar, bixar...". Bigarrena politikua zan eta danak zien promesak. Hirugarrena, arkitektua, eta dana proiektuak eta proiketuak. Azkena haziendako inspektoria zan eta beti atzetik emoten zostan.

LAU TXORRO

Bazan neska bat egundoko problemia zeukana eta amagana juan da:

- Ama, arazo bat daukat... lau txorrotan txiza egitten dot!

- Lau txorrotan? Medikuangana juan biharko gara.

Juan die medikuangana eta kontau dotse arazua. Eta medikuak:

- Hau bai arrarua, hau ezin leike. Plakak egin biharko dittuzue eta berriro etorri.

Etara dittue plakok eta medikuangana juan die berriro. Eta honek:

- Trankil, ez da ezer, bragetazuaizan da, hemen dago botoia.

Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola

Andaluziarrak, extremadurarrak ala galiziarrak gehiago?

Goienkariaren aurreko alean Al Andalus elkarteari buruzko erreportajetxoa agertu zen. Andaluziar asko dago Debagoienean. Asko bai, baina extremadurarrak eta galiziarrak baino gehiago?

- Bai, extremadurarrak eta galiziarrak baino gehiago.
- Galiziarrak baino gehiago, baina extremadurarrak baino gutxiago.
- Ez, extremadurarrak eta galiziarrak baino gutxiago.

Erantzun zuzena: Galiziarrak baino gehiago, baina extremadurarrak baino gutxiago.

Soluzioak





Horoskopoa

Berenize

ARIES
martxoak 21-apirilak 21

Martek zure zeinuarengan duen indarrak aurrera egin eta zailtasunak gainditzeko ideiak emango dizkizu. Une egokia bidaia eta inbertsioetarako.

TAURUS
apirilak 22-maiatzak 21

Ez da zure nagusiei aurre egiteko unea, itxaron pixka bat. Etxean aldaketak egin ditzakezu.

GEMINI
maiatzak 22-ekainak 21

Ideia eta egitasmo ugari izango dituzu, baina ez egon zain besteak zure bila etorri arte. Ekin eta hurbildu komenigarria den jendeari.

CANCER
ekainak 22-uztailak 22

Norbaitek traizio egingo dizu, lagun batek seguruenik. Hobe zure lagunak eta kideak aukeratzen badituzu. Kontuz gatzarekin eta koipe asko duten janariekin.

LEO
uztailak 23-abuztuak 22

Ilargiak zure zeinuarengan duen eraginak urduritasuna eta egonezina sortuko dizkizu. Ez zaituztela kontuan hartzen iruditzen zaizu eta ez daukazu ezertarako gogorik. Izan baikorra.

VIRGO
abuztuak 23-irailak 22

Maitasuna, pasioa eta ulermena zure alde izango dituzu, eta maitatu eta miresten zaituztela sentituko duzu. Paper batzuen inguruko arazoek abokatuarenera ereman zaitzakete.

LIBRA
irailak 23-urriak 22

Heldu iezaiozu kanpora irteteko daukazun edozein aukerari, abentura zoragarriak gerta dakizkizuke eta. Zure ingurukoak erakarriko dituzu.

SCORPIUS
urriak 23-azaroak 22

Pertsona batzuek zuk espero duzun estimua emango ez dizutelako lur jota ibiliko zara agian. Ez da maitasun harreman bat hasteko une aproposa.

SAGITTARIUS
azaroak 23-abenduak 21

Jendarteko bizitzak bidaiatzera bultzatuko zaitu, baita zure bizimodua aldatu eta pixka bat osasuntsuagoa egitera ere. Ez egin hainbeste astakeria zure osasunarekin.

CAPRICORNUS
abenduak 22-urtarrilak 20

Arrakasta edo hobekuntza ekonomikoa ekarri diezazuketen ikasketa, lan edo egitasmoen inguruko berri onak izango dituzu.

AQUARIUS
urtarrilak 21-otsailak 20

Gogorik gabe eta malenkoniatsu ibiliko zara, eta horrek neke itxura emango dizu. Azkenaldian ez duzu atsedenik hartu eta horregatik ohi baino larriago zabiltza. Zorizko jokoentzako uñe egokia.

PISCIS
otsailak 21-martxoak 20

Familiako eztabaida izango duzu eta errua zuri egotziko dizute. Arduratu zaitez zeure buruaz eta ez utzi besteek goberna zaitzaten.

GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA

BERGARA HIRIA
Pilota Txapelketa GOITBn

Ekainak 20, eguaztena, 22:00etan. FINALERDIAK.
Vicente-Torres // Errea-Jauregi (Promesak)
Larraia-Navarro // Castellanos-Gutierrez (Seniorrak)

Ekainak 27, eguaztena, 21:00etan. FINALAK.

ESATARIAK: Anartz Agirre (kazetaria)
eta Xabier Ubera (pilotaria).



Goitb
Goiena Telebista

Goiena Telebista

Posta elektronikoa: goitb@goiena.com

Telebegi

Burukomina

Nam June Paik artista korearrak konpositorea izan nahi zuen txikitan, baina ez zen antza oso musikari ona. Orain, irudia eta soinuarekin lan egiten du. Telebista eta bideo aparailuekin egiten ditu partiturak. Telebista kateetako zuzendari eta jabeei ordea, hizkuntza berri honek baino burukomin handiagoa ematen die publizitateak, diruak. Urte sasoi hau oz da telebistaren sasoirik onena, jendeak kanpoan ordu gehiago pasatzen baititu etxe barruan baino. Kontsumoa gaitsi egiten da eta iragarki bat egitea nahi duen enpresa, produktu, agentzia, portal, erakunde edo medioak, gehiago du dirua beste hilabete batzuetan xahutu.

Baina sasoi txarraren ondorioak alboan utzita, bestela ere jaitsi egin da publizitatea telebistan. Pasa den urtean, duela bi baino %1,25 iragarki gutxiago eman zituzten Estatuko eta Autonomia Erkidegoko telebista kateetan. Ia milioi eta erdi iragarki hala ere, baina beherakadak gorraitzen badu, arazo ugari ekar diezaioke askori. Edozein ere, telebista kateek gehiago fakturatu zutela esan duten, eta egia izan daiteke gainera, publizitate minutuaren prezioa %11,6 igo baitzen.

Telebista katea, eguna, programa eta orduaren arabera, 20 segundoko iragarki bategatik 200.000 pezeta ordaindu behar dira. Urteko azken eta lehen segundo bakarragatik aldiz, milioi bat. Baina segundo horiek ez dira nahikoa telebista kateetako buruek duten burukomina kentzeko.

Bitartean telebista ikusten ari diren lau ikus-entzuletatik bat, "zapping" egiten dute iragarkiak heltzean.



Oihana Elortza

'Astebete'

Egubakoitzean, 21:05ean

Atxiloketak Debagoienean

Atzo goizaldean Polizia Nazionalak lau gazte atxilotu zituen Arrasaten. Aramaion, berriz, hiru izan ziren atxilotuak. Operazioa goizeko ordu batean hasi zuen poliziak. Miaketak ere egin zituzten. Gai hori izango dugu aztergai gaur, hilak 15, *Astebete* saioan. Horren inguruko erreportaje zabala ikusteko aukera izango duzue. Horrez gain, *Astebete* saioan ohikoak diren tarteak ere izango dira: albiste errota, asteko albiste garrantzitsuenen errepasoa eta Debagoieneko aldizkarien errepasoa. Marijo Deogracias kazetariak aurkeztuko du saioa eta berarekin batera Mikel Lezamiz eta Eneko Azkarate izango dira.

'Goibegirada'

Eguaztenean, 21:05ean

Gay eta lesbianak hizpide

Ekainaren 28an gay eta lesbianen nazioarteko eguna ospatzen dela aitzakia hartuko dugu telebistan, gai hori mahai gainera ekartzeko. Oraingoan Gasteiz aldetik datozen gonbidatuak jarriko ditugu mahaiaren bueltan,izan ere, homosexualen gaineko informazioa eskaintzen duen "Enfasis" zerbitzua oso gertutik ezagutzen dute. Urtebeteko esperientzia dute, jada, harrera, laguntza eta aholkularitza lanetan. Gainera, zerbitzu berria eta berritzailea dugu Gasteizkoa. Mikel Irizarrek aurkezten duen *Goibegirada* saioan izango ditugu, eguaztenean, hilak 20, gaueko bederatzietatik aurrera.

GOITB kiroletan

Eguaztenean, 21:05ean

Finalerdiak

Jadanik baditugu Bergarako Hiria pilota txapelketan finala jokatuko duten lehen bikoteen izenak: promes mailan, Zabala eta Oteizak osatutako bikotea eta seniorretan, Mikel eta Casado bikotea. Aurkari izango dituzten pilotarien izenak martitzenean jakingo ditugu, izan ere, orduantxe jokatuko dute kanporaketa. Bergarako udal pilotalekuan izango ditugu aurrez aurre Vicente-Torres eta Errea-Jauregi bikoteak promes mailan. Seniorretan, berriz, Larrai-Navarro eta Castellanos-Gutierrez pilotariek jokatuko dute. GOITB hantxe izango da eta zuei partiduak eguaztenean eskainiko dizkizue, 22:00etan. Esatari lanetan: Anartz Agirre eta Xabier Ubera.

Goitb Goiena Telebista — Asteko programazioa / Ekaina 15-21

EGUBAKOITZA 15	ZAPATUA 16	DOMEKA 17	ASTELEHENA 18	MARTITZENA 19	EGUAZTENA 20	EGUENA 21
13:30 **Albiste aurrerapena**	13:30 **Saioen errepikapena** *Gatza eta berakatza, Xeleberri, Bergara Hiria Pilota txapelketako finalerdiak, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete*	13:30 **Saioen errepikapena** *Gatza eta berakatza, Xeleberri, Bergara Hiria Pilota txapelketako finalerdiak, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete*	13:30 **Albiste aurrerapena**	13:30 **Albiste aurrerapena**	13:30 **Albiste aurrerapena**	13:30 **Albiste aurrerapena**
13:40 **Gatza eta berakatza**			13:40 **Gatza eta berakatza**	13:40 **Gatza eta berakatza**	13:40 **Gatza eta berakatza**	13:40 **Gatza eta berakatza**
13:50 **Sarrera doan** (errepikapena)			13:50 **Astebete**	13:50 **Goienasport**	13:50 **Ekilan**	21:05 **Goibegirada**
20:00/20:30: **Berriak**			19:45 **Gatza eta berakatza**	19:45 **Gatza eta berakatza**	19:45 **Gatza eta berakatza**	22:05 **Bergara Hiria pilota txapelketako finalerdiak**
20:30 **Non-zer**			20:00 **Berriak**	20:00 **Berriak**	20:00 **Berriak**	19:45 **Gatza eta berakatza**
20:35 **Berriak**			20:30 **Non-zer**	20:30 **Non-zer**	20:30 **Non-zer**	20:00 **Berriak**
21:05 **Astebete**			20:35 **Berriak**	20:35 **Berriak**	20:35 **Berriak**	20:35 **Berriak**
21:30 **Soinuz blai**			21:05 **Goienasport**	21:05 **Ekilan**	21:05 **Goibegirada**	21:05 **Sarrera doan**
					22:05 **Bergara Hiria pilota txapelketako finalerdiak**	21:05 **Soinuz blai**

Barruko kontuak

ZUZENEKO KONTZERTUAK

GOITB "Portu"ren omenez antolatutako kontzertuan izango da. Datorren egubakoitzetik, hilak 22, aurrera kontzertua eskainiko dugu *Soinuz blai* saioan. Astero bi talde izango ditugu protagonista eta euren emanaldia oso-osorik emango dizuegu. Hortaz, Monterronen egingo den kontzertua zure etxetik ikusteko aukera emango dizu GOITBk. Gogoratu *Soinuz blai* 21:30etik aurrera eskaintzen dugun saioa dela.

'EKILAN'

Hogeita bosgarren saiora iritsi gara enpresa hizpide izaten duen tarte honetan. Hortaz, zenbaki berezi hori ospatu nahi dugu martitzenean eta Alberto Gorritibereak saio berezia prestatzen dihardu. Izen handiko gonbidatuak ekarriko ditu platora eta erreportaje zabalak eskainiko ditu Debagoineko zenbait enpresa hizpide hartuta. Albertorekin hitzordua martitzenean, hilak 19, duzue gaueko bederatzietatik aurrera.

Kamera aurrean

"Amparo Larrañaga inoiz ez da antzezten duen pertsonaiekin identifikatzen."

Amparo Larrañaga | Aktorea
"XELEBERRI" (2001-06-12)

"Aloñako gurutzea historian oso estimatua denez, konpontzea pentsatu genuen."

Andres Osinaga
"BERRIAK" (2001-06-13)

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea, z/g • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea, 33 • 132 postakutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna, 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: arrasatepress@euskalnet.net
Aretxabaleta 20550 Durana, 11 • 151 postakutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: aretxagazeta@euskalnet.net
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: publi@goiena.com.
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2001eko ekainaren 15a

Atzeskua

MAIDER OSA

Maixa Lizarribar/Soinu jotzailea

Debagoiena ongi asko ezagutzen duzu. Hainbat herritan izana zara soinu eta pandero eskolak ematen.

Arrasaten eskolak adina urte daramat eskolak ematen, hamar urte. Soinua erakusten hasi nintzen, eta orain pandero eskolak ere ematen ditut. Bergarako eskolan, berriz, urtebetez aritu nintzen. Hango ikasleei panderoa jotzen erakusten nien.

Arrasateko trikitixa eskolak 10 urte bete ditu. Zer esan nahi du horrek?

Ni ere zahartu naizela, noski! Niretzako sekulako poza izan da hamar urtez Arrasaten eskolak ematea. Barrena hazi egiten dio norberari jende multzo batek hamar urteotako denbora tarte luzean trikitixaren alde lan egiten duela ikusteak.

Antzematen da asko maite duzula Arrasateko eskola.

Bai. Pilo bat maite dut, neurea balitz bezala.

Izan ere, izango da neurri handi baten zurea.

Nik uste dut denon izerdiaz egindako eskola dela. Ikasleen, irakasleen eta bertatik pasa den jende guztiaren artean egindako eskola da Arrasatekoa. Gertatzen dena da, beste hainbat irakasle etorri eta joan egin diren bitartean, nik hortxe segitu dudala.

Trikitixak gorakada itzela izan zuen duela urte batzuk, eta bailaran ere igarri zen hori. Zein egoeratan dago orain?

Arrasaten sekulako egoera ona bizi du trikitixak. Ikasleen artean oso giro polita dago, eta lehen eskolan egondakoak ere ohartu dira horretaz. Gasteizen eta Altzon ere ematen ditut eskolak, eta ikusi dut jendeak ikasteko gogoa baduela. Kalera irteterakoan jendeak egiten duen harrera, ordea, beste kontu bat da. Badirudi kaleko jendea pixka bat aspertu dela trikitixa entzuteaz.

Trikitixa nola definituko zenuke?

Bizimodua, laguna eta nekatzen ez nauen tresna. Nire momentu kritiko guztietan gainean izan dut soinua.

Maixa eta Ixiar taldeak berea egin zuen, baina orain buru-belarri ari zara talde batekin lanean.

Beste hiru mutilekin ari naiz. Dagoeneko baditugu dozena bat abesti. Hurrengo pausoa zerbait grabatzen hastea da. Ez goaz betiko trikitixa tradizionala egitera, ezta popa ere.

Zenbat urterekin eduki zenuen lehenengo soinua?

Bederatzi urterekin. Erregeek ekarri zidaten. Trikitixaren antzerakoa zen, baina ez zen trikitixa. Nire kabuz abestiak ateratzen hasi nintzen, eta gurasoei izugarrizko nazkatualdia eman ondoren, ikastera eraman ninduten.

Lehenengo aldiz kalera soinua jotzen irten zenuenean, abesti bakarra zenekien jotzen.

Gabon batzuetan izan zen, Altzon, eskean atera ginenean. Gero familia arteko festak-eta hasi nintzen girotzen.

Zenbat soinu dituzu?

Bederatzi bat.

"Arrasaten eskolak adina urte daramat eskolak ematen, hamar urte"

"Nik uste dut denon izerdiaz egindakoa dela Arrasateko eskola"

"Niretzako bizimodua, laguna eta nekatzen ez nauen tresna da trikitixa"

► *Altzoarra / 30 urte / Soinu jotzailea*

AIPAGARRI

ANDRES OSA "SAKONA"
Bergara / Kazetaria

Elorregikoa haur eta gaztetxoei zuzendutako *Kili-Kili* aldizkariaren zuzendari berria da. 35 urte beteko ditu aurten *Kili-Kili* aldizkariak eta indarberrituta ekingo dio aro berriari: orrialde gehiago, sail berriak... 12.000 ale banatu nahi dituzte hilero. Horrez gain, Kili-Kili eguna antolatu gura dute urtean behin, Aste Santu inguruan.



ANDONI URTZELAI
Aretxabaleta / Telebista errealizadorea

Hainbat hilabetean Goiena Telebistan zuzendari lanetan jardun ostean, Asegarcera itzuli da. Urteetan Arrasate Telebistan ibili zen eta lehen ere Asegarcen aritutakoa da, besteak beste *Bricomania* saioan eta pilota emanaldietan. Gaur egun, Otorduan Karlos Argiñano ETBko sukaldari saioan dihardu errealizadore lanetan.